

Okela

HARATEGIA

GURE ETXEAN EGINDAKOAK.

PRESTATUTAKO PLATERAK

ETA

GURE URDAIAK

mortadelak

saltxitxak

chopped

hanburgesak

jamon york

....

**ASKO DISFRUTATU
SAN PEDRO JALETAN!**



Kale Nagusia 41 • Tel.: 943 363912



Lasarte-Oria



jaiji

KAFE-ANTZOKIA



**KONTZERTUAK
ANTZERKIAK
GIRO PAREGABEA, PINTXO GOXOEKIN**

**HERRIKO FESTETAN
OSO ONDO PASA!**



GELTOKI KALEA 4 BEHEA

LASARTE-ORIA • Tel.: 943 377024

San Pedro jaiak iritsi dira!

Beste urte batez ia konturatu gabe iritsi zaizkigu San Pedro jaiak. Dagoeneko armairutik atera eta txukundu ditugu blusak urte luzean armairuan gordeta egon ondoren. Batzuentzat gaur izango da festetako lehenengo eguna izan ere, Sorgin Jaikoek gaur jaurtiko dute euren txupina.

Bihar berriz, eguerditik aurrera festa lehertuko da haurren txupinazoarekin batera eta herri osoan jai giroa nagusituko da. Izan ere, jarraian iritsiko dira jaietako ekintza nagusietakoak diren Sorgin Dantza, txupinazoa eta lehenengo parranda gaua, Esne Beltza eta Vendetta taldeekin. Aurten ere, Okendo plaza izango da festen gune nagusi.

Egitarau oparoa dugu ekainaren 26tik 30era bitartean. Sorgin Jaikoek txosna Okendo plazan izango dute iaz bezala eta plazako agerlekua elkarbanatuko dute Udalak eta Ttakunek antolatutako ekintzekin. Ohi bezala, Sorgin Jaiek irekiko dituzte festak gaur txupinazo alternatiboarekin, 20:00etan egingo dute eta izango dira ustekabeak. Aurten Ostadar eta Xirimiri elkarteak omendu nahi izan dituzte. Udalak ordea, bihar bi txupinazo egingo ditu aurreko urteetako bideari jarraiki eta 2014ko bi omen-duek botako dituzte txupinak, Texas eta Kukukako kideak hain zuzen.



Lehenengoa, haurren txupinazoa izango da eguerdiko 12:00etan udaletxe zaharretik. Honetara herriko haur eta gazteak gonbidatuta daude buruhandi, erraldoi eta txarangaren doinu alaiekin batera festari hasiera eman diezaizoten. Arratsaldeko 19:00etan berriz, Texas eta Kukukako kideek izango dute txupina Udaletxe berriko balkoitik Lasarte-Oriako zerura botatzeko ardura.

Hortik aurrera, leher egingo du festak. Herriko kaleak girotuko dituzte txaranga eta buruhandiek, Sorgin guneak, danborradak, zikiro-afariak, barrakek, kontzertuek... Baina batez ere herritarrok emango diegu kolorea, festaren arima izan behar dugulako.

Lauzpabost egunez etxetik kanpo egongo gara, kaleak hartuko ditugu eta hamaika ekintzetan, festa ofizial zein alternatiboen baitan antolatutakoetan, parte hartuko dugu.

Gaur motorrak berotzen hasteko aukera izango dugu eta bihar lehertuko dira San Pedroak. Goza dezagun bost egun hauetan egingo dugun bidez!
Gora San Pedro Jaiak!

**hurrengo
zenbakia**

txintxarri

Uztailaren 1ean

2014ko San Pedro festetako argazkiak

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



Laguntzailea



Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Eredakzioa:

Maider Azurmendi, Nerea
Eizagire, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantz Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Jone M.
Hernandez, Jexux Artete, Pako
Aizpitarte, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

Haritz Hernandez eta Sergio Gracia jokalariai Texas Lasartearra Omendua

“Familia bat gara”

Texas 1964. urtean sortu zen eta ibilbide luze hau omendu nahi izan du Udalak

50 urte betetzen ditu aurten Texas futbol taldeak. Bere sortzailea Angel Arruti “Texas” izan zen. Egun presidentea da Jose Cantos, “Maño”ren lekukoa hartu ostean. Denboraldiz denboraldi zailtasunak berdinak direla dio, diru falta eta ekipoak mantentzeko zailtasunak. Sergio Garcia eta Haritz Hernandez dira jokalarietako bi. Zailtasun guztien gainetik, onerako eta txarrerako familia bat bezala dira Texaseko bazkideak.

Maider AZURMENDI

Texas futbol talde beterranoena da Lasarte-Orian. 1964. urtean sortu zuen Angel Arruti “Texas”-ek eta historia luze honetan asko izan dira biziak gora beherak. Garai onenetan bost mailatan izan zituen taldeak Texasek. Egun zailtasun ekonomikoak tarteko, jubilen eta erregionaletan izan ditu taldeak Texasek. Baina erregionala soilik izan du jolasten azken urteetan.

Texasen historian aipagarria da lehendakari ezberdinek egin duten lana taldearen biziraupena ziurtatzeko, bereziki Jose Serranok egindako lan eskerga aipatzen du, egungo lehendakaria den Jose Cantosek.

Jende edo diru falta dela eta taldeak zailtasun asko gainditu behar ditu jokatzeko jarraitzeko hau dela eta futboleko jokatu nahi duten herritarrek anima-

tzen dituzte Texasera gerturatzeko.

Zenbat bazkide ditu egun Texasek?

Egun 50 bazkide inguru izango gara Texasen jokari, entrenatzaile, zuzendaritza eta senide zein laguneren artean.

Zenbat denbora daramazue Texasen?

Haritz: Hemezortzi urterekin hasi nintzen Texasen Elola entrenatzailearekin. Gero denboraldi desberdinak bizi izan ditut jokari bezala, bi talde maila berean ere egon zirenekoak gogoratzen ditut... Adinak aurrera egin ahala, utzi egin nuen eta duela bi urte berriz bueltatu nintzen taldera.

Bertan netiko lagunekin egin nuen topo.

Sergio: Bi urte daramatzat jokari eta entrenatzaile.

Jubilenekin, 16-17 urtekoen taldea gidatu dut denboraldi



Haritz Fernandez eta Sergio Garcia Texas Lasartearra taldeko jokalariai diru egun.

honetan. Emaitzek ez dute asko lagundu eta denboraldia amaitu ahal izateko jokalariai behar izan dituzte gazteek ikasketengatik etab. utzi behar izan dutelako taldea.

Jokalarien konpromisoa dago?

Ezin da orokortu baina jokalariai gogotsu hasi arren, eguraldi txarra, lana, azterketak, familia direla eta, denboraldi osoa egitea kostatu egiten dela.

Texas bezalako taldeetan parte hartzaileen konpromisoa beharrezkoa da ia taldearen biziraupenerako.

Nire kasuan, (Haritz) konpromiso handiarekin hartu nuen nire buelta taldera. Halako talde txikien biziraupena gure esku dago, jokalariai guztien esku, eta ahal dugun gehiena aportatzen saiatu behar gara.

Texas bezalako talde historikoa jokalarien konpromiso faltagatik galtzea gogorra litzateke. Jubiletako taldea atera ahal izateko beste herrietako gaztetxoak bilatu behar izan ditut, kopa jokatzeke taldea osatu gabe geratu zitzaizkidan.

Zailtasun ekonomikoak aipatzen dira ere.

Hala da, urterokoa da finantziazioarena. Dirurik ez dago eta ez dago inorentzat, babesleak mantentzea nahiko lan.

Jokalariai bakoitzaren fitxa egiteagatik ordaindu egiten da eta zerbait gehiago ordaintzen dugu urtean taldeak bestelako laguntzarik ez duelako. Urteak dira Udalak ez digula diru laguntzarik ematen, esaten zaigu taldeak galerarik ez duela eta hala da. Defizitiko ez daukagu beti gure poltsikotik ari garelako dirua jartzen.

Gure ustez, erakundeek gehiago lagundu beharko lukete, azken batean, herritarrei kirolean aritzeko aukera bat



Hipodromo etorbidea 3
Lasarte-Oria
Tel.: 943 366176
labegoxo@euskalnet.net

Pastelak
Opilak
Pastak
Ogia
Bonboiak
....

Etorri-gurekin
kafearhartzera
gosaltzera
.....



OSO ONDO PASA HERRIKO JAIETAN!

Elisabeth
Heapaindegia


Hipodromo etorbidea 10
20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 361597
647 821361

OSO ONDO PASA HERRIKO JAIETAN !

Firma onenekin egiten dugu lan

Eguerditan irekia
hitzordua
aurrez hartuta

Udaberri-uda
arropa sorta berria
modelo eksklusiboekin



gehiago da Texasek eskaintzen duena.

Diru faltagatik jendea animatzen ez dela uste duzue? Badakigu egun bizi dugun langabezia egoera dela eta gazte askok ezin dutela gurera etorri urtean ezin dutelako diru hori ordaindu. Zenbait jokalariri kuotak ordaintzeko erraztasunak eman zaizkie azken denboraldietan.

Fitxak, kiroldegia, jende asko dago urtean 300 euro ezin dituen ordaindu futbollean jokatzegatik. Onerako eta txarrerako familia bat gara.

Nolako giroa duzue Texasen?

Esan bezala zailtasunak gainditzen saiatzen gara denboraldi bakoitzeko eta horrek ere gure harremana estutzen du.

Familia bat gara eta harremana oso ona da jokalarien artean. Gurasok ere lagunak egin dira eta denboraldi amaieran jubenilak, erregionalak, zuzendaritzakoak, guraso, lagun eta patrozinatzaileak elkartzen gara afari edo bazkari bat egiteko.

Ostadarrekin nolako harremana duzue?

Gure aldetik ona da. Historikoki taldeen artean egon izan da lehia baina egun ez dago horrelakorik.

Ostadar eta Texasen artean lankidetzat gehiago egon beharko luke. Futbollean jokatu nahi duen jendea badago, taldeak osatu ezinean aritzen gara batzuetan eta kide horiek guztiak elkartuta, talde lehiakor bat osatzea legokeela uste dut.

Gertatu zaigu denboraldian zehar jokalariek uztea taldea eta ezinean iritsi gara amaiera eta pena izan da. Jokalari gehiago izango bagina, malgutasun gehiago genuke tarteka huts egiteko edozein arrazoi medio.

Baina herrian futbollean jende asko aritzen da...

Bai bina talde guztietan gertatzen da. Taldearekiko konpromisoa hartzea zaila da, lana edota familia dira lehentasunak eta hauek uztartu ezin daitezken uzten den lehenengo gauza noski futbola da.

2010ean Texasek irabazi zuen kopa azken aldiz. Egundako erregionalen ekipoko gazteenak 21 eta 23 urteko bi lagun dira beste guztiak 28 urteko gorakoak gara. Adin tarte horretako jendea non dago? Non sartzen dira? Lokaletan? Ongi etorriak izango lirarteke Texasen.

Denboraldi berrian jendea hartzeko prest beraz...

Bai, Texasek edozeinentzat dauzka ateak irekiak, behar den bakarra da futbollean jokatu nahia, gogoia.

Guk ez dugu baldintzarik jartzen, eskaini nahi duguna da futbollean jokatzeko aukera, besterik ez. Guretzako zaletasun bat da eta lana eta bestelakoekin uztartzen dugu.

Hala ere, egia da talde lehiakor bat izan eta osatzeko gogoia badaukagula. Berdin zaigu nondik datozen jokalaririk, gogoarekin etortzea da eskatzen dugun bakarra.

Zer egin behar da Texasen



2013-2014 denboraldian aritu den Erregional mailako taldea Texaseko lehendakari eta lehendakari ordearekin.

jokatzeko?

Esan bezala baldintza berezirik ez dugu jartzen, berriki entrenamendu saio ireki bat ere egin dugu jende berria erakartzeko asotan.

Bestela, Facebook orria daukagu eta bertatik jarri daiteke jendea harremanetan gurekin, Texas Lasartearra Futbol club.

Herritarrek animatzen ditugu Texasen jokatzera, edo behintzat saiatzea.

San Pedro jaietan udalren aldetik omenduak izatea nola hartu duzue?

50 urte betetzen ditu Texasek eta omenaldia urte hauetan guztietan egindako lanari aitortza bat da. Urte hauetan guztietan asko izan dira talde-taldek pasatako herritarrek.

Denek oso pozik hartu dugu. Bereziki aipatu behar dira urteak bertan lanean daromatzen jendea, besteak beste, egungo lehendakaria eta lehendakari ordea den Manolo. Honek 80 urte ditu eta bere koinatua izan zen taldearen sortzailea, Angel Arruti "Texas".



60.hamarkadako Texas taldea Arruti, sortzailea eskuinean dagoelarik.

Manolok jokalaririk bere kotxean eraman izan ditu partidatara, bere inplikazioa erabatekoa izan da Texasekin. Bereziki gogoratzen dugu partidak hasi baino lehen txikleak banatzen jokalariei guztiak.

Beraiek taldea urtetik urtera mantentzeko izugarriko lana egin dute beste kide batzuekin batera eta gure kasuan, gazte garen neurrian dagokigu aipatutako konpromisoarekin erantzun eta ahal den neurrian taldea indartzeko lan egin, eurek egindako lana alperrik

izan ez dadin. Denak oso gustura sentitzen gara Texasen eta omenaldiaren aitzakietan ea jende gehiago gerturaten den Texasera.

Nola biziko dituzue jaiak?

San Pedroak modu berezian ospatuko ditugu eta omenaldiaz gozatuko dugu noski.

Espero dugu herritarren babesa jasotzea txupinazoan baita omenaldi ekitaldian ere. Texasen aritutako herritar guztiak hauek parte hartzea gonbidatu nahi ditugu.

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU !



Fisioterapia Zentroa Ibaiondo

Fisioterapia
Errehabilitazioa



**Masajeak
Osteopatia**

Ola Kalea, 12 - behea. ezk - LASARTE-ORIA
Tel. / Faxa: 943 370 306 - fisioibaiondo@gmail.com

INFORMATIKA MARTINEZ MULTIMEDIA



ONDO IGARO JAIETAN !

Ezagutu itzazu gure eskaintzak, beste inora jo aurretik!

Uzturre plaza 2, behea + Tel./Faxa: 943 360591 LASARTE-ORIA

Zitek

HOBETU NAHI? LAGUNTZA KLASEAK

Zientziak eta hizkuntzak Informatika

OSO ONDO PASA!

Goikale 12 behea
Tel.: 943 363106
20160 Lasarte-Oria
www.zitek-akademia.com

MUGICA & ABURRUZA

aseguru artekaritza, S. L.

*IBILGAILUAK	*BIZITZA ETA ERRETIROAK	*ETXEBIZITZA ETA KOMUNITATEAK
MOTOTZIKLETAK	*OSASUNA	*INBERTSIOAK
AUTOMOBILAK	*ISTRIPUAK ETA GAIXOTASUNAK	*PYMEAK...
AUTOKARABANAK	*ERANTZUKIZUN ZIBILA	
FURGONETAK		
KAMIOIAK...		

Ganbo Kalea | LASARTE-ORIA Tel.: 943 363449 & Faxa: 943 372413

DISFRUTATU SAN PEDROTAN!



MUGICA

**Ganbo kalea 1, LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362275 & Faxa: 943 372413**

Kukuka Antzerki eta Dantza eskola Omenduak

“Herri bizia eta koloretsua eraikitzen laguntzen dugu”

Zabaleta auzoan jaio zen antzerki eskola duela 20 urte baino gehiago

Kukukaren ibilbidea Zabaleta auzoan hasi zen. Umeak gerotz eta gehiago zirela eta seme-alabentzako ikuskizunak egiten hasi ziren festak edota bestelako aitzakiek. Ikusle bezala, festetan pailazoak ekartzen ziren etab. Guraso talde bati bururatu zitzaion pailazoak eurak izatea besteak beste, Santos Uribe, Mikel Blas, Ramon Salazar, Kontxu Iartza, Joxe Mari Agirretxe izan ziren lehenengo urratsa eman eta pailazoz janztera animatu zirenak. Auzoko haurrentzat egindako emanaldi hartatik, sortu zen egun Kukuka antzerki eta dantza eskola dena. 600 ikasle eta 22 irakasle.

Maider AZURMENDI

Joxe Mari Agirretxe, Kontxu Iartza, Maideri Oartzabal eta Alex Tellok azaldu zituzten Kukuka antzerki eta dantza eskolaren ibilbidea. Udalak omenduko du herriko antzerki eta dantza eskola eta halakorik espero ez zutela aipatu arren, oso pozik daudela diote.

Urteetako lanari aitortza izateaz gain, “erakundearen aldetik Kukukak egiten duen lanaren aldeko apustu bezala ere ulertzen dugu” aipatu dute.

21 urte inguru dira Zabaletako guraso talde batek auzoan antzerki tailerra martxan jarri zuela.

“Haurrei aukera eskaini nahi izan genien antzerkia egiteko eta horrela hasi ginen antzerki tailerrak egiten. Bi talde osatu ziren, haur eta gaztetxoena. Auzoan, guraso eta auzo elkarte bezala oso pozik geunden bi taldeen lanarekin.

Guretzat positiboa zena herriarentzat ere positiboa izango zela pentsatu genuen eta aldapan behera geneukana eskaintzea bururatu zitzaigun”.

Landaberrin eskaintza

Orduan Zabaletako haur gehienak Landaberrin ikastolan ikasten zuten eta bertan antzerki tailerra egiteko aukeraz hitz eginda, zuzendaritza zein gurasoek begi onez ikusi zuten eta martxan jarri zen. Antzerki tailerra egiteko aukera eskaini zen lehenengo ikasturtean, bost antzerki talde osatu ziren, tartean gurasoena bat.

Antzerkiarekin hasi zen baina dagoeneko ikastolan euskal dantzak lantzen zirela aipatzen dute Kukukakoek. Hala ere, “haurrak 7 urte betetzen zizutenean, arazoa sortzen zen, batez ere mutilekin. Kirolarekin hasi eta dantza egiteari uzten zioten gehienak. Hor abiatu genuen hausnarketa bat dantzaren esparruari dagokionez”.

Aurretik orde, Maideri Oartzabalen lana ezagutzen zuten. Herriko dantzaria Donostiako Zurriola Ikastolan zebilen irakasle. “Zabaletan zein taldean ari ginela, dantza bat behar genuen, erritmo afrikarrak ziren eta ez genekien nola lortu, Ane Arteagak Maiderekin harremanetan jarri gintuen eta

eskaera horren aurrean prest azaldu zen laguntzeko. Emaitzarekin oso pozik geratu ginen”.

Zurriola eredu

Hasiera haietan Zurriola Ikastolako antzerki eskolara jo zuten, Joserra Fatxado zegoen han eta antzerki eskolen artean erreferentzia zen. Kontxu egon zen Joserrarekin lana nola egiten zuten ikasten.

Antzerkiaren barruan, formazio bezala, dantzaren urtea zen Zurriolan DBH2koei eskaintzen zitzaiena eta hor zebilen Maideri Oartzabal irakasle. Horrela ekarri genuen Landaberrira, azken batean gurea hasieran ere antzerki eskola zen, baina gazteek oso ondo pasa zuten eta aukera eman nahi izan genien jarraitzeko. Gazteen artean ikusita dantzak zuen indarra eta potentziala erabaki genuen eskaintza zabaldu behar zela, horrela antzerki eta dantza eskola jaio zen.

“Guraso ginen, eta seme-alabei ahalik eta aukera zabalena eskaini nahi genien beraiek gero gustukoena aukera zezaten. Eskaintza zabaldua, irekia eta aberatsa izan zen helburua hasieratik. Dantzaren esparruan sartzea, oso pauso logikoa eta beharrezkoa izan zen. Apustua zuzena izan zela dakigu orain eta asko irabazi dugu”.

“Hausnarketa ere derrigorrezkoa izan zen kontutuan izanda adin batera iritsi eta batez ere mutilak, euskal dantza uzten zutela kirolarengatik”.

“Euskal Dantza Berrituz deitu genion hasieran, orain



Kukukako kideak pozik daude Udalak egindako aitortzarekin.

euskal dantza sorkuntza da.”

Maiderekin bereziki azpimarratu nahi izan zuen eskolako dantzarekiko izandako eskuzabaltasuna. “Niretzat Kukuka ez da beste bat izan, eskola honetan dantzarekiko izan duten eskuzabaltasuna aipatu nahi nuke. Antzerki eskola izatetik, dantzari bere bidea egiten utzi zaio eta, Kukuka eta Lasarte-Orian personalki jaso dudana ez

dut inon jaso. Oso nirea sentitzen dudana egitasmoa da, asko jaso dut urte hauetan guztietan”.

Ikastolatik herrira

Ikastolan urte batzuen ebo-luzioa egin ondoren, Sasotarra eta Institutura saltoa eman zuten antzerki eta dantza eskolak, eta gerora helduen taldeen artean, Ttakunekin solaskideen talde bat sortu

Difrenauto

Tel.: 943 37 01 49
Fax: 943 36 66 59
taller@difrenauto.com
www.difrenauto.com

Oria Etorbidea 8 - 10 pab. 15
20160 LASARTE-ORIA (Gipuzkoa)

HERRIKO JAI ZORIONTSUAK IGAROI!

I Eguneko menua
I Asteburuetakoko menua
I Tradiziozko sukaldaritza
I Etxeko postreak

Larre

Larrekoetxe bidea 10 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 361012 / 943 360480

SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK PASA!

Oso pozik gaude egiten ari garen lanarekin, gureak sentitzen ditugu ere herriko beste elkarte eta taldeekin egiten ditugun ekintzak, lehenik eta behin euskaratik ari garelako

zen ere. Euskararen erabilera sustatzeko asmo sendoarekin ere.

“Oso gustura sentitzen gara ikastetxe guztietan eskaintza bat egiten ari garelako, solaskideekin ere ari garelako eta beste bat gehiago sentitzen garelako herriko elkarte mugimenduan. Oso pozik gaude egiten ari garekin, asko daukagu ikasteko oraindik, hori dauka handitasunak, baina gureak sentitzen ditugu ere herriko beste elkarte eta taldeekin egiten ditugun ekintzak, lehenik eta behin euskaratik ari garelako eta besteekin elkarlanean, herri bizi bat, koloretza eraikitzen gure alextza jartzun dugulako”.

Arrakasta

“Dudarik gabe hasi ginenean, ez genuen uste inolaz ere halako arrakasta izango genuenik”.

Kukukako kideek diote ez direla oso kontziente izan urte hauetan guztietan eskolak hartu duen tamainaz. “Joan gara egiten eta egiten, dena ematen eta tamaina hartu duela ikusten dugu batez ere ikasturte ikasturtera. Hamargarren urteurrenean egin genuen gogoeta eta orduan konturatu ginen eskolak egindako ibilbideaz. Oso hunkigarria da”.

Kontxuk argi dauka “egitasmoa txikitasetatik joan da handitzen jendearen gogoeta eta eskaerari erantzuna emanez”.

“Egia da ere pazientziarekin ere dela, pentsatuz ona izango dela egindako guztia. Batzuetan ez dakizu noraino iritsiko zaren. Oso motzera geratzeko aukera ere hori egon zen, zailtasunak ere egon direlako baina apustuak egin dira eta ondo ateratu da”.

Eskaintza zabaltzearekin batera, “arazo handi bat

genuen. Urtero joaten zitzaizkigun irakasleak eta haurrentzat urtero zeuden aldaketak. Horrek eragina bazuela pentsatzen genuen eta orduan bertako irakasleak lortu behar genituela erabaki genuen. Irakasle finkoek sendotasun bat emango zioten eskolari. Aldi berean, kalitatea eta esperientzia aportatu zezaketen irakasleak behar genituen ere, lehenengoak etortzen Mikel Sarriegi eta Joserra Fatxado izan ziren Maider Oiartzabalekin batera”.

Egun Kukukan 600 ikasle inguru daude eta 22 irakasle. Irakasleen artean, txikitatik ikasle izan diren gazteak daude baina baita antzerki-gintzan ibilbide garrantzitsua dutenak ere, Miren Gojenoladago, Asier Sota, Urki Muguruza, Iñigo Arabarri eta Alex Tello.

Antzerkia eta dantza egite hutsetik bereziki nabarmentzen dute Kukukako kideek eskolari esker sortu diren haremanak eta herriko beste elkarteekin batera jaiotako elkarlanak. Beti ere euskara ardatz nagusi izanda.

Bestalde, sorkuntzaren sustapenak bere fruituak eman dituela argi dute Kukukakoek ere. Agirretzek gogoratu bezala, Euskararen Maratoia antolatzen zenean “gazteekin tarteren bat osa-tzea oso zaila zen. Egun eurek eskatzen dute tartea prestatutako koreografiak edota antzerkiak oholtzan egiteko. Oso pozgarria da hori”.

Antzerki eta dantza eskolak beste balio eta gaitasun asko lantzen ditu, “komunikatzeko, sortzeko... autoestima eta konfiantza lantzen da eta asko aportzen du. Helduengan aldaketak nabarmenak ematen direla ikusten dugu eta txikitatik hasita pentsa. Egun eskolan dauden gazteek oholtzan nola mugi-



Landaberriko helduen antzerki tailerreko kideak Joserra Fatxado irakaslearekin 2003ko irudian.

tzen diren ikustearrekin nahikoa da. Izugarria da duten gaitasuna eta kalitatea. Horretaz gain, familia osoak daude Kukukako talde desberdinetan lanean eta azken 12 urteak gurekin daramatzaten ikasleak ere asko dira. Hori lana ondo egiten dugulako da, gustura daudelako.”

Herritik kanpo eskaintza

Zabaleta, Ikastola eta herria, izan da Kukukaren ibilbidea. Baina beste herri batzuetako antzerki taldeak sortzeko pizgarri ere izan da Kukuka. Andoain, Irura, Añorga... EHAZE Euskal Herriko AntzerkiZale Elkartearen sorreran pisua ere izan du herriko eskolak.

Erreferente bilakatu da eskola herritik kanpo ere “deitzen digute emanaldiak emateko, gure esperientziak hitz egiteko, antzerki tailerrak kudeatzeko... oso harro gaude”.

Lan onari omenaldia

“Ikuslearen kulturatik, parte hartzearen kulturara saltoa eman nahi izan zuen Kukukak eta herrigintzatik bermatzen da parte hartze hori”. Hala ere, Kukukakoen ustetan erakundearen babesa beharrezkoa da bide honetan aurrera egiteko.

Omenduak izatea “guretzako urte hauetan egindako lanari errekonozimendu bat



2005ean aurkezten zuten Landaberriko antzerki eskolaren III. antzerki astea.

da baina ulertzen dugu baita ere, Udaletik egiten den elkarlanerako apustu bezala”.

Bide batez aipatu nahi izan dute “faltan botatzen dugu adibidez, hilabeteroko programazioan, antzerki eta dantza amateurra euskaraz herrira gehiago ekartzea. Harremanak baditugu beste herrietako taldeekin, gu ataraten gara beste herri batzuetara emanaldiak ematera eta taldeak ekarri nahiko genituzke”.

Bestalde, Udalarekin “hitzarmen bat lortu dugu lehengoz legealdi honetan eta aurrera begira hitzarmen horretan sakontzea gustatuko litzaike”.

Oso pozik daudela aitortu dute Kukukakoek, Kontxu eta Maider joan ziren udalera eta eurek jaso zuten omenaldian berri, “lokal baten eskaera

aspaldi egin genuen eta eman behar zigutela pentsatzen genuen. Ez genuen omenaldia espero”.

Deialdi irekia

Omenaldian parte hartzeko deia luzatu nahi dute Kukuka antzerki eta dantza eskolako kideek. Izan ere, aitortza denontzat da ikasle, irakasle, guraso... eskola osoa da omendua.

Eguerdiko txupinazorako, 11:15ean kultur etxean hitzordua egin nahi dute eskolako kide guztiekin eta handik kalejiran abiatu udaletxe zaharrera. Bertan eskolaren dantza egingo dute.

“Denak gonbidatu nahi ditugu kalejiran parte hartzera guraso, ikasle eta irakasleak. Eskolako kamiseta edota berdez jantzita gerturatzea hobe”.

I. URRUZOLA

ARROZTEGIA



Oria etorbidea 4, behea
(Errekatxo jatetxearen ondoan)
Tel.: 943 371200 / 610 413131
LASARTE-ORIA

- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea.

OSO ONDO IGARO
HERRIKO JAIETAN!



Elena Dominguez Jaietako kartelaren egilea

“Argi neukan lanak irabazteko aukera zuela”

Koadrilen blusak nabarmentzen dituen kartelari esker, 600 euroko saria eskuratu du

Elena Dominguez herritarrek egindako kartelak iragartzen ditu San Pedro Jaiak. Ez da lehenengo aldia horrelako lehiaketa bat irabazten duela baina hala ere, harrizten da bere lana herriko kale eta dendetan ikusten duenean. Blusak herriko jaietako bereizgarri politenetakoa dela defendatzen du.

Maidier AZURMENDI

Web diseinatzailea da formazioz Elena Dominguez herritarra. Urteak ziren halako lehiaketa batean parte hartzen ez zuela baina aurtengoan berarentzat izan da saria Udalak antolatutako kartel lehiaketa. Herritarra oso pozik dago bere lanarekin eta blusak jaietako bereizgarri nagusienak direla defendatzen du.

Aurten saria irabazita, datozen urteetan lanak aurkeztuko dituela dio. 600 euroko sariarekin ere zer egingo duen erabakita dauka.

Nolatan erabaki zenuen parte hartzea?

Azken urteetan pasa egin zait kartel lehiaketa. Egia esateko, ez dut jarraitu kartel lehiaketa aurreko urteetan egin den edo ez eta aurten lagun batek esan zidan martxan zegoela.

Esan zidanerako, egun gutxi geratzen ziren epea bukatzeko eta uste nuen ez zidala denborarik emango lan bat prestatzeko baina ideia eduki nuen, blusena hain zuzen, ona zela iruditu zitzaidan eta aurkeztu nuen kartela. Azken momentuko gauza izan zen dena.

Blusak etorri zitzaizkizun burura...

Bai hala da. Niretzako San

Pedro jaiak hasi aurreko irudi tipikoa da gure herriko balkoi eta leihoetan blusak zintzilik ikustea.

Jaiak aipatu eta burura etortzen zaidan lehenengo irudia da ia. Taldeen bereizgarriak dira blusak eta hori da niretzako herriko jaiak duten gauza politenetakoa bat.

Zuk blusa janzten al duzu?

Azken urteetan aitortu behar dut ezetz baina nire armaruan asko ditut gordeta. Uste dut, nerabezaroan egin genuela lagun koadrilan lehenengo blusa eta gerora beste asko egin ditut.

Orain umeekin jaietako plana aldatu da niretzako eta blusa ez dut jarri azken urteetan. Hala ere, agian animatuko gara berriz... nik uste dut ohitura hori ez dela guztiz galtzen. Lagun taldeak, gero, adinean aurrera eginda ere, blusak berriz janztera egiten dute.

Beste kartelak ikusita, irabazteko aukera zenuela pentsatzen zenuen?

Ba egia esan bai, inork ez ditu blusak nabarmendu. Ideia oso ona zela benetan sinesten nuen eta lehiaketa irabazteko aukera ikusten nuen ia hasieratik.

Aurreko urteetako lanak ez ditut ikusi eta ez dakit aurtengo maila altuagoa egon den ala ez. Kartelen kalitateari



dagokionez, bazeuden proposamen interesgarriak.

Lehenengo aldia da horrelako lehiaketa bat irabazten duzula?

Duela urte dezente ez nintzela halako lehiaketa batera aurkezten. Behin, duela urte asko, Inauterietako kartel lehiaketa irabazi nuen herrian eta Andoaingo jaietarako kartel lehiaketa ere irabazi nuen beste behin baina biak aspal-di.

Sariarekin zer egingo duzun pentsatuta duzu?

600 euroko saria da eta egia esan, oso ondo dagoela iruditzen zait. Lehiaketara aurkezteko pizgarri bat bada.

Oraindik ez dut asko pentsatu zer egingo dudun diruarekin, baina suposatzen dut kapritxo bat edo beste

erosiko dudala eta gainontze-koa oporretan gastatzeko izango dela.

Herritarrek aukera izan dute lanak bozkatzeko. Zer iruditzen zaizu?

Udalaren aldetik, orokorrean herritarrei jaietako kartela hautatzeko aukera eskaintzea oso ideia ona dela iruditzen zait. Hala ere, ez dut uste sistemarekin asmatu denik.

Interneteko botoak jarraitu ditut baina nik uste dut ez duela oso ondo funtzionatu. Desoreka handia zegoen bozketan. Badakit ez dela erraza baina nire ustez, beste modu batera egin beharko litzateke datorren urtean.

Ikusi duzu zure kartela kalean?

Bai hasi naiz ikusten eta arraro egiten zait. Nik sortutako

zerbait kalean eta herriko etxe guztietan egongo dela jakiteak sentsazio arraroa eragiten dit. Baina oso pozik nago.

Gertuko jendeari ere asko gustatu zaio kartela eta aitortza hori ere edukita, azkenean, oso harro sentitzen zara egindako lanarekin.

Datorren urtean aurkeztuko zara?

Ba orain egia esan, lehiaketa gehiagotara aurkezteko gogoekin nago eta horrela galdetuta esango nizuke baietz, datorren urteko San Pedrotarako ere kartela aurkeztuko dudala.

Hala ere, lehiaketetara lan onak aurkezteko, denbora eskaini behar zaie eta beti ez da erraza izaten tarte hori bilatzea eta noski, ideia on bat topatzea beharrezkoa da.



ASKO DISFUTATU SAN PEDRO JAIETAN!

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak

- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak


www.electricidadarregui.com

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 361080 Tel./Faxa: 943 372521



www.goiegi.com

GOIEGI

Jatetxea - Restaurante

Irubide bailara 1 · 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)

T. 943 36 14 04 / 943 37 11 78



kutxabank **k**

Zure jaiak.
Gure jaiak.

 kutxa

Fran Toquero Ostadar SKT-ko Erregionaleko atezaina

“Lagunekin jolastea nahiago nuen”

Hogei denboraldi Ostadar SKT-n egon eta gero futbola uzten du lasarteoriatarrak

Fran Toquero Ostadar SKT-ko Erregional Ohorezko Mailako atezainak futbola utziko du. Alebinetan hasi zen taldean jokatzeko eta 20 urte egin ditu maila ezberdinetan taldearen kamiseta. Beste taldeetara joateko aukera izan arren, herrian geratzea nahiago izan zuen. Momentu ederrak eta latzak bizi behar izan ditu urte hauetan. Harekin bildu gara bere ibilbidearen errepasso bat egiteko.

Nerea EIZAGIRRE

Alebinetatik Erregional mailara, Erregional maila taldearen jaiatsierak eta igoerak, entrenatzaile eta jolas kide aldaketak... denetarik bizi izan ditu Fran Toquero 20 denboraldietan. Orain futbola utziko du eta etorkizunean entrenatzaile izango dela onartu du.

Alebinetatik Ostadarren. Zenbat urte dira zehazki?

Duda daukat ez dakit 94 edo 96n hasi nintzen. Uste dut 9 urte neuzkala, beraz 95ean.

Eskolarretan hasi nintzen, Landaberri Ostadar zen. Adin horretan zegoen kirol federaturik eta kirol eskolarra izan behar zenuen.

Partida kopurua esaten jakingo zenuke?

Ba ezin dut zehaztu, partida asko dira 20 denboralditan jokatu ditudanak.

Futbola bakarrik egin duzu? Ez beste kirolik?

Nik hasiera batean karate egiten nuen. Baina lagun gehienek futbola egiten zuten eta adin horretan baloiarekin joaten ginen leku guztiak.

Eta lagunak ikusten nituen modu jarraian edo serio batean entrenatzen eta ideia gustatu zitzaizkidan. Atezain gabe gertu ziren. Jolas garaitan ni jartzen nintzen eta animatu ninduten.

Beraz atezain txikitatik?

Beno, lehenago urte bat egon nuen jokalarri bezala. 7 edo 8 urterekin. Orain eskola kirola egiten den bezala, ba nik futbola egin nuen eta jokalarri izan nintzen.

Gero atezain bezala joan nintzen beste taldera. Nire erabakia izan zen. Nire koardilako bat zegoen atezain lanetan eta gol asko sartzen zizkioten. Kokoteraino zegoen, utzi zuen eta ni jarri nintzen bere lekuan.

Atezainaren postuak erantzukizun handia du...

Kolpe guztiak jasotzen dituen zakua gara. Ondo egiten duzunean, denek zoriontzen zaituzte. Gaizki egitean, lehenago zara kritikak jasotzen.

Oso erraza da kritikatzeko. Niretzat jende gutxi jokatzeko du postu horretan eta jende asko daki postu horri buruz.

Oso zaila da, profesionalen posturik zailena dela esaten da. Azkenean zelaiko jokalarri bat denbora guztian dago jokoan eta atezaina... Zu egon zaitzake 60 minutu batean baloia iristen da zuregana eta geratu dezakezu edo gola da.

Asko zaindu behar al zarete atezainak?

Entrenatzaile asko izan ditut atezaina jokalarrien artean fisikoki hoberen egon behar dena esaten zutenak. Nire kasuan ez da horrela inoiz izan.

Amorrua ematen dit jokalarri askok “ez duzue ezer egiten” esaten dute, “ez duzue korrika egiten, ez zarete nekatzen”... animatuko nituzke atezain entrenamendu bat egitera, zirkuitu, jaurtiketak, etab. Ziur askok ez dutela jasaten.

Betikoa da, askotan esaten da ez dugula ezer egiten. Lehen esandakoa inor ez da atezain jarri eta mundu guztiak daki honi buruz.

Jokalarrien lesioez hitz egiten da normalean, baina atezainek ere min hartu dezakete...

Bai eta nik nahiko zorte txarra dut horretan. Baina harrizten nau ez dudala inoiz hezurko lesiorik izan, muskularrak guztiak, bihurrituak, hatzak atera edo dislokatu, ukondoa... baina lesio larririk ez.

Zuntz-etendurak izan dira larrienak. Azkenekoa pubiseko arazo bat izan zen eta barne-zolak jarri nituen zapatiletan. Ez dut berriro arazorik izan.

Entrenatzaileak aipatu dituzu. Berezirik izan al duzu?

Entrenatzaile asko izan ditut. Zaila da bat esatea eta konpromiso bat. Beti ikasi izan dut zerbait beraien-gandik.

Baina esate baterako, Futbol eskola b a t e a n

edo selekzio moduko batean izan nintzen infantil mailan. Urrietako zelaira joaten ginen entrenatzaile. Bertan Errealeko ikuskatzaileak zeuden eta besteak beste, Biurrun zegoen entrenatzaile izandakoa. Nere lehenengo edo bigarren urtea izan zen eta oinarrizko ezagutzak hark eman zizkidan.

Gero Arrasaten ikasten nengoela ere bertako taldekoekin entrenatzen egon nintzen, gu baino bi maila gora zeuden. Azpiegitura eta prestatzaileak zituzten eta entrenamenduak ere teknikoagoak ziren. Hemen ere atezain entrenatzaile ezberdinak izan ditut eta oso ondo.

Usurbil Cup, Donosti Cup edo nazioarteko txapelketara joan?

Usurbilen futbol 7ko txapelketan batean parte hartu genuen. Baina aspaldi ez dut ia gogoratzen.

Baina pena hori daukat Donosti Cup eta horrelakoak ez ditudala jokatu. Orduan, Ostadar ez zen horrelako txapelketetara joaten. Orain azken urteetan gehiago.

Nire garaian ez. Atzerriko taldeen aurka jokatzeko oso polita izango zen.

Nazioartekorik ere ez dut jokatu, baina Holandan izan nintzen Erasmus egiten eta bertan talde batean egon nintzen jokatzeko. Urte erdi eta oso grazioso zen ingelesez, portugaldar, errusiar, nazio ezberdinetako jendearekin jolastu nintzen.

Kapitain izan al zara?

Ez eta adarra jo izan didate horrekin. Partida solteak egon naiz, kapitaina aldatu eta ni jartzen nintzen edo berezko kapitaina ez zegoelako. Baina egia esan jokatu ditudan urte guztiak gutxi.

Entrenatzaile askok esaten zuten atezaina kapitaina izatea ez zitzaizela gustatzen. Eta ez naiz izan. Agian karisma kontua da edo... Lehen mailan normala izaten da, hor daukazazu Casillas eta Bravo.

Oroitzapen asko izango dituzu. Txapelketa garrantzitsurik? Edo zuretzat momentu bereziena zein izan da?

Erregional Ohorezkoa izango izango da garrantzitsuenak.

Baina gero ere beste oroitzapen polita dut Usurbilen. Bigarren mailako finala irabazi genuenean eta igo ginen. Gure talde kidea Jon Arruti kotxe istripuz hil zen eta taldea asko batu zen. Berari igoera eskaini nahi genion, finala irabazi genuen eta bere aitak eman zigun kopa gainera. Momentu hunkigarriak eta oroitzapen politak izan ziren.

Igoera oso garrantzitsua izan zela esan duzu, bai zuretzat baita Ostadarrentzat ere, ez?



Fran Toquero Ostadar SKT-ko atezain izan da alebin mailatik.

tsst

Gure herriko autobusak
Azkarra, segurua eta eroso

ASKO DISFRUTATU

HERRIKO JAIETAN

Tel.: 943 361740 • www.tsst.info





Ostadar SKT Erregional taldeak bi igoera bizi izan ditu. Jon Arrutiri eskaini zioten I. Erregionalerako igoera. J. TOQUERO

Maila polita da. Garrantzia duena. Herrian futboleko maila txukun batean ibili nahi zuenak herriko kanpora joaten zen Hernani edo Donostiara. Eta pena bat zen.

Batetik jendearen ikuspegitik, zeren eta nik ere joateko aukerak izan ditut baina nahigo izan dut herriko taldean geratu. Baina horrela da jendeak balio gehiago ematen dio maila bat gorago jokatzeari, herriko taldean jokatzeari baino.

Eta igoerarekin kalitatea edo maila horretan jokatu nahi zuen jendea aukera ematen genion bertan geratzeko.

Gainera, kadete eta jubenilak oso maila altuan daude eta pena bat zen horiei jarraitpen bat ez ematea. Erregionalerara iritsi eta taldeak agian ez zuen beharrezko maila eta kanpoko taldeak etorriko

ziren eramatea. Horrela aukeratu dute bertan geratzeko.

Eta momentu txarrak?

Zelaitik kanpo, momentu oso gogorra izan zen Jon Arrutiren heriotza. Beno egia esan aldagelan bere zain ginen, partida hasteko zegoen eta guri arraroa egiten zitzaigun ez etortzea. Orduan eman ziguten berria. Guretzat oso momentu latza izan zen.

Kirolaren arloan, Hondarribin galdu genuen eta bigarren erregionalera jaitsi ginen. Azken partida zen, Hondarribiren aurka jokatu genuen eta galdu. Gogorra izan zen.

Baina badut beste bat. Ez zen hain gogorra izan, zeren eta ez zuen galerarik suposatu. Baina Ohorezko mailara igo baino bi urte lehenago Zumaikoren aurka ere beste play-off bat jokatu genuen eta deskontuan irabazi ziguten,

jokoz kanpo eta amorru eta ezintasun handia sentitu neun. Urte guztia borrokatu genuen igotzeko eta azkenean denbora pasata zegoenean, 3 edo 4 minutu eta jokoz kanpo... guretzat baijori handia izan zen.

Beste talde batzuetara joateko aukera izan zenuen...

Ez asko, baina... erregional mailan jokatzeko, bitan deitu didate. Jubenil mailan ere dei batzuk izan nituen Vasconia, Hernani... Baina esan bezala, nik lagunekin egotea nahiago nuen.

Nik argi neukan futbolaz ez nintzela biziko eta zertarako egiten nuen futbola. Azkenean ikasketekin eta guztia bateratzeko... niri pertsonalki ez zidan konpentsatzen. Nahiago nuen bi maila beherago jolastu, lagunekin eta gustura egotea.

Kolpe guztiak jasotzen dituen zakua gara. Ongi egiten duzunean, denek zoriontzen zaituzte. Gaizki egitean, lehenengoa zara kritikak jasotzen

Erregional Ohorezko mailan uzten duzu Ostadar, baina ez zara bakarra...

Zenbaterik uzten duten ikusi beharko da. Jende askok zalantza dauka oraindik.

Urte guztietan gertatzen da denboraldi bukaeran. Jendea askok utziko duela dio eta gero hilabeteak igarotzen dira eta berriro ere gogoekin zaude, denboraldiak luzeak egiten dira.

Pena bat izango litzateke guztiek uztea. Ikusiko da.

Baina zuk erabakia hartu duzu dagoeneko, ezta?

Pena handia ematen dituzteak. Ez da fisikoki ezin dudala, lanarekin kirola ezin uztertuko nabil.

Asteburuetan ere denbora gutxi izaten dut eta ezin dituz planak egin, baina futbola gustuko baduzu ez diozu hainbesteko garrantzia ematen.

Erabakia hartu dut dagoeneko burugorri bat naiz eta. Erantzukizun batzuk ditut eta beste gauza batzuei ematen diet garrantzia.

Gogoatik beste bost urte egingo nituzke jokoan, baina...

Futbolak ere nekatzen al du?

Bai, errutina zorrotza da.

Astean hiru egunetan entrenatzen duzu eta partida egunarekin, lau.

Entrenamendua bi ordu eta dutxa azkenean arratsaldea joaten zaizu, larunbatak partidarako. Ezin dut pote bat hartu gero entrenamendua daukat eta, goiz bazkaldu behar dut partida daukadako... Zentzu horretan nekatzen du, baina kirola gogoko duzulako egiten duzu eta zaletasun bat delako.

Urte guztia gainera ezberdinak dira, entrenatzaileak ez dira bi urte baino gehiago egoten, taldeko kideak ere aldatzen dira eta giro ezberdina egoten da. Nahiz eta bloke nagusia urterokoa izan, urtetik urtera ezberdintasunak daude.

Futbolarekin zer ikusirik duen zerbait egingo duzu? Entrenatzaile izatea pentsatu duzu?

Ziur. Baina orain denboraldi batean lasai egon nahi dut.

Entrenatzaile lanak ere egin ditut noizbehinka. Lagunak entrenatzaile ziren eta niri esaten zidaten atezainekin laguntzeko. Neskekin, alebekin, infantilekin... eta oso gustura egon izan naiz.

Ez dut inorekin hitz egin eta ez dakit noiz izango den baina badakit egingo dudala.

Osteopatia eta esku-terapiak

Aritz Lopez
Zumaburu 7
20160 Lasarte-Oria
662 341038

Oso ondo pasa festetan!

ZUMABURU
LIBURUDENDA

ONDO PASA FESTETAN!

Nagusia Kalea 46 behea
20160 Lasarte Oria
Tel.: 943 371386

ONDO PASA!
NEUS
ile-apaindegia

Pablo Mutiozabal 9-1.C
Tel.: 943 361691
LASARTE-ORIA

asarte
inmo

Garbiñe F. Irastorza

SAN PEDRO JAIETAN OSO ONDO PASA!

www.inmolasarte.com

Geltoki Kalea 16 behea
Tel.: 943 536481 - 659 257345
20160 Lasarte-Oria
info@inmolasarte.com

LIBRERIA MAITE

OSO ONDO PASA HERRIKO JAIETAN!

Geltoki 12 • Lasarte-Oria
Tel.: 943 372791



ALBA

ARROPA DENDA

ASKO DISFRUTATU HERRIKO JAIETAN!

Nagusia 65 behea • Lasarte-Oria • Tel.: 943 574450



KOOKAI
NAFNAF
VERSE

Ttakuneren ohiko hitzorduak San Pedrotan

Sorgin dantza, zikiro jana, busti blai, kantu eta dantza jira, sagardo dastaketa eta bertso saioa izango dira elkarteak antolatutako ekintza nagusiak

Ttakun kultur elkarteak ohi bezala, aurten ere hitzordu nagusienak mantendu ditu San Pedro jaiaren egitarauan. Haurren bazkaria eta ur jolasak, Sorgin Dantza, zikiro afaria, bertso saio berezia, sagardo dastaketa izango dira besteak beste jai egun hauetan. Herritarrak ekintza hauetan parte hartzera animatzen dituzte Ttakunetik.

Ttakun kultur elkarteak urtero bezala hainbat ekitaldi antolatu ditu San Pedro jaiaren egitarauan. Adin guztientzako ekintza sorta prestatu da aurtengoan ere eta ohi bezala herritarren aldetik harrera ona izatea espero da. Hauetako batzuek arrakasta ziurtatuta dute, Sorgin Dantza eta Zikiro afaria esaterako.

Adin guztientzako ekintza sorta prestatu da aurtengoan ere eta ohi bezala herritarren aldetik harrera ona izatea espero da. Hauetako batzuek arrakasta ziurtatuta dute, Sorgin Dantza eta Zikiro afaria esaterako.

Haurren bazkaria

Bihar San Pedro jaiari hasiera emango zaie eta azken urteetan ohikoa den bezala, etxeko txiki eta gazteak izango dira jaietaz gozatu duten lehenak.

12:00etan, haurren txupinazioa egingo da Udaletxe zaharretik. Ondoren, 13:30ean, haurrak kalejira joango dira Atsotakarreko parkeraino eta bertan, 14:00etan, haurren bazkaria, makarronada antolatu du Ttakunek.

Begiraleen eta Oriako Txarngaren laguntzarekin 9 eta 12 urte arteko gaztetxoak Okendo plazatik aterako dira kalejira Atsotakar auzoraino, bertan makarroiak bazkalduko dituzte eta bazkalostean Busti Blai ur festa arrakastatsua egingo dute.

Ur jolas ezberdinak burutuko dituzte hurrek 16:30ak arte eta "ziur haur eta gaztetxoek gustura hartzen dituztela jolasak," aipatu dute antolatzaileek.

Ikastetxeetan lagun koadrilaren izena eta irudiarekin margotutako kamisetak erakusteko aukera izango dute gainera hurrek egun honetan.

Sorgin Dantza Oriatik

Jaietako adierazgarri da Sorgin Dantza eta aurten ere ez du hutsik egingo.

1994tik antolatzen du Ttakunek dagoeneko Lasarte-Oriako herriaren eta bertako festa nagusien ikur bihurtu



Sorgin Dantza Oriatik abiatuko da 16:30ean Okendon bukatzeko txupinazioa baino lehen.

den Sorgin Dantza. Aurten Okendo plazan burutu dira entseguak eta oso harrera ona izan dutenez, biharkoan jentza elkartea espero da.

Azken urteotan parte hartzaileen kopurua asko ugartu da eta hurrek ere egiten dute kalejira eta dantza.

Helduen zortzikotearekin batera gazteen zortzikotea osatu da aurten ere eta zerrenda luzetik zozketaz

hautatu behar izan dira kideak.

Sorgin Dantza, Oriatik abiatuko da bihar, 16:30ean gutxi gorabehera.

Aurten bidean dantzariak egingo dituzten geldialdiei dagokionez, Oriatik lehenengo, Biyak Bat elkartearen parean bigarrena, Udaletxearen parean hirugarrena eta azkenik, Hipodromo etorbidetan egingo da dantza plaza-

ra sartu aurretik.

Okendora 19:00etan txupinazioa aurretik iritsiko dira dantzariak.

Zikiro afaria

Gauean askorentzat ere tradizio bilakatu den zikiro afaria egingo du Ttakunek Okendo plazan.

Arratsaldeko lehen orduetatik aurrera dira sukaldariak 22:00etarako gutzia prest iza-

EUROMIKEL'S, S.L.

QR code

N-1 Ctra 441 km, 34 Polg.
20150 Villabona
Tel.: 943 360850
943 365401
boxes@euromikels.com
www.boxeseuromikels.com

OSO ONDO PASA JAIETANI!

Hazlo tú mismo

Auto Mekanika BOXES

OPERTA ESKANTZAN

943 360850

Urtero KOTXEA, MOTO edo FURGONETARI ERREBISIOA egiten edo OLIOA aldatzen, zergatik hainbeste ordaindu ?

Hiru aukera dituzu :

zuk egiten duzu

zuk gurekin ikasiz

guk egiten dugu

DEITU ETA ESKATU PREZIOAK KONPROMEZURIK GABE

ABEND

KAFE-ANTZOKIA

DISFRUTATU HERRIKO JAIETANI!

Pablo Mutiozabal 5 · Tel.: 943 372089 LASARTE-ORIA

EGUNEKO MENUA

DANTZA

BOKATAK

KONTZERTUAK

Gogoko Sakar deiretibid

teko. Beraz, usain ederra izango da arratsalde osoan zehar Okendo plazan.

Afarian, entsalada eta zikiroa egongo da 300 lagunentzat, giro ezin hobean.

Honetan parte hartzeko salgai izan dira txartelak azken bi asteetan Ttakun eta Jalgin. Bapo afalduta, dantzarako garaia izango da.

Kantu Jira

Igandean, San Pedro egunean, Ttakunen egitarauan gero eta arrakasta handiagoa duen kantu jira egingo da goizean.

Aurten ere iaz egin bezala, dantza plazako dantzariak lagunduko dute eta dantza eta kantua uztartuko dute.

Eguerdiko 12:00etan abiatuko dira Sagardotegi kaletik euskal abestiak kalez kale kantatu eta dantzatzuz.

Honetan plaza dantza eta Erketzeko dantzariak arituko dira.

Xumela abesbatzak eta Albokako kide batzuk ere parte hartuko dute euren ahotsak batuz eta gonbidatuta daude bertan parte hartzera, Hondarribi, Zarautz, Usurbil eta Donostiako kantu jiretako kideak.

Sagardo dastatzea

Iluntzean Sagardo dastatzea

eta dantza gidatuekin primeran pasatzeko aukera izango da.

Honetan herriko Sollane, Buenavista, Telleri, Zubillaga eta Saltsate baserrietako sagardoa banatuko da.

18:00etan hasiko da Okendo plazan eta 20:00ak arte luzatzea espero da.

Bertso saio berezia

Gauean berriz, bertsoez gozatzeko aukera eskainiko zaie herritarrei.

San Pedro jaietako bertso saio berezia Manuel Lekuonan egingo da 22:00etatik aurrera.

Aurten, Ane Labaka, Amaia Agirre, Amets Arzallu, Andoni Egaña, Beñat Gaztelumendi eta Patxi Etxeberria arituko dira oholtzan. Gaiak berriz, Unai Muñoa bertsolariak jarriko ditu.

Bertso saio polita antolatu du aurtengoan ere Ttakunek Earra! Bertso eskolak.

Sarrerak egunean bertan erosi ahal izango dira Manuel Lekuona kultur-etxeko lehiatilan 4,70 eurotan edo aurrez interneten www.lasarteoriasarean.eu-n 4,32 euro ordainduta.

Aukera zabala eta adin guztietarako ekintzak Ttakunen esku San Pedro jai haue-
tan ere.



Busti Blai jaia egingo dute gaztetxoek makarronadaren ostean Atsobakarren.



Zikiro jana 300 lagunentzako izango da Okendo plazan 22:00etatik aurrera.





Balardi Harategiak




ONDO IBILI SAN PEDRO, GURE HERRIKO JAIETAN!

LASARTE
Kale Nagusia, 36-38 • Tel. 943 33 42 82

Geltoki kalea, 19 • Tel. 943 37 65 85

Kale Nagusia, 50 • Tel. 943 36 36 11

HERNANI
Izpizua kalea • Tel. 943 33 42 82

URNIETA
Idiazabal kalea, 17 • Tel. 943 00 81 69

DONOSTIA
Bermingham, bajo n° 31 • Tel. 943 28 23 23



Ongi etorriak San Pedro jaiak!



Bihar egun handia izango da, herriko jaietako hasiera emango zaie eta horrekin batera gure kaleak musika eta kolorez beteko dira. Aurtengoan ere bitan izango dugu aukera jaietako ongi etorria emateko, bihar eguerdiko haur txupinazoan egin ahal izango dugu edota arratsaldekoan. Ekintza egitarau oparoa izango da datozen egunotan herritarren esku eta aipagarria da herriko hamar elkartetan bano gehiagok antolatuko dituztela ekintza ezberdinak jaien baitan. Musika, antzerkiak, jokoak eta eskaintza gastronomikoa ere ez da faltako. Astindu blusak, kalera atera eta jaiak gozatu!

Kudrilategi

WREKUTERRAZIN

txintxarri

AMARAUN

TTAKUNEKO KIDE GUZTIEN PARTETIK

SAN PEDRO JAI ZORIONTSUA OPA DIZUEGU !!

Kultur Elkartea Ttakun

Osteguna 26

18:00
Sari banaketa Jubilatuen Elkartek egindako jarduerengatik eta jarraian luntxa eskeinitiko zaie parte hartu dutenei.

Ostirala 27

10:30
Gimnastikako erakustaldia egingo dute Biyak Bat jubilatuek Udaltzaren Kideek Udaltzaren Kirolegian.

11:00
Haurren kalejira, Ola Kaletik abiatuta, Atsopakerrera.

12:00
Jaiei hasiera emateko, omenaduen pregoia eta haur txupinazoa botako da Udaltzaren, eta Buruhandien Konpartsa. Ostari elkartaren eskutik abiatuko da, Oriako Txaranga eta Pasai Txarangaz lagundurik.

13:30
Oriako Txaranga-rekin haurren kalejira Atsopakerrera, irteera Udaltzaren zaharrena izango duelarik.

14:00
Haurren herri-bazkaria Atsopakerrera. Ttakun K.E.-k antolatua.

15:00
Bazkaldoan, urretako jolasak Atsopakerrera auzoan. Ttakun K.E.-k antolatua.

16:00
Busti Blai jarduera, Atsopakerrera plazetan barrena. Ttakun K.E.-k antolatua.

16:30
Sorgin-Dantza abiatuko da Oriatik, eta Okendo Plazan bukatuko da. Ttakun K.E.-k antolatua.



19:00
Elkarte omenduen eskutik pregoia eta txupinazoa Udaltzaren berriko balkoitik Okendo Plazan.

19:30
Erraldioen dantza Ostari elkartaren eskutik Okendo Plazan.

20:30
Txarantuka Kale Nagusitik abiatuta herriko kaleetan barrena.

21:30
Zikero-afari tradizionala Okendo Plazan. Ttakun K.E.-k antolatua.

23:00
Dantzaldia Azabacheren eskurik Isla Plazan.

00:00
Zezen-suzkoa Kale Nagusian.

00:00
Esne Beltzaren kontzertua Okendo Plazan.

02:00
Vendettaren kontzertua Okendo Plazan.

Larunbata 28

09:00
Amalur Txistulari eskolakok diana joko dute.

11:00
Mele erraldoia Michelin kirol guneko futbol zelaian Beltzak Ostadarrek antolatua.

11:00
APG (Aprende a patinar Gipuzkoa) ikasleen lerrokatina erakusketa Okendo Plazan.

11:30
Gauerdiko Txarangarekin kalejira Michelin kirol gunetik Okendo Plazara.

11:30
Haur Parkea Andatza Plazan.

12:00
Hirugarren errugbi garaia Okendo Plazan Beltzak Ostadarrek antolatua.

12:30
Ostari elkarteko Erraldoi eta Buruhandien irteera, Gauerdi txaranga lagun dutela herriko kaleetan barrena.

13:00
Omenaldia Kukuka antzerki eta dantza eskola eta Texas futbol taldeari omenaldia Manuel Lekuona kultur-etxean.

16:30
Haur Parkea Andatza Plazan.

18:00
Trapu Zaharrak "La Conga" antzeztuko du (erderaz) herriko kaleetan.

19:00
Amaia Gonzalez Caballero dantza eskolako ikasleen aretoko-dantza erakusketa, Sube-

ri akordeoi orkestrak lagunduta, Manuel Lekuona kultur-etxean.

20:00
Haur ikuskizuna Sukaldean Festa Andatza Plazan.

23:00
Beteranoen danborrada tradizionala, Oriako Txaranga lagun dutela, Okendo plazatik herriko kaleetan barrena ibiliko dira.

00:00
Berri Txarraren kontzertua Okendo Plazan.

01:30
Correfoc-a, Les diables de Vilafranca-ren eskutik, Kale Nagusitik abiatuta, herriko kaleetan barrena.

02:30
Boston Jairekin erromeria Okendo Plazan.

05:30
Zo-Zongoren Psychoclowndak batukada Okendo plazatik abiatuta herriko kaleetan barrena.

06:30
Txokolate-jana Okendo Plazan.

Igandea 29 San Pedro eguna

09:00
Amalur Txistulari eskolakok diana joko dute.

10:00
"San Pedro jaiak" bolo eta toka lehiaketa Udaltzaren bolotoan.

11:00
Haurren danborrada, Manuel Lekuona kultur-etxetik herriko kaleetan barrena ibiliko da.

TABERNA Buenetxea

KAFETEGIA

OSO ONDO PASA HERRIKO JAIETAN!



Tostadak
Kruasanak plantxan
Txokolatea txurroekin
.....

San Pedrotan,
goizalde arte
irekita



Irlandesa
Eskoza
Kaputxinoa
Bonboia

Batido naturalak
Koktelak
Mojitoak
Gin Tonic Bereziak

FESTETAN

- Pintxoak
- Bokatak
- Razioak
- Sandwichak
- Pintxo morunoak
- Brotxetak

Pablo Mutiozabal 2 • Tel.: 943 369508
LASARTE-ORIA

11:30
Esku pilota-partidak Jubenilen eta 1. Mailako seniorren kategorietan, Loidibarrengo frontoian.

11:30
Haur Parkea Isla plazan.

12:00
Kantujira Okendo plazatik abiatuta, herriko kaleetan barrena ibiliko dira. Ttakun K.E.-k antolatua.

12:00
Ostargi elkarteko Erraldoi eta Buruhandien irteera, dultzaineroak lagun dituztela herriko kaleetan barrena.

12:30
Iparraldeko Herri-kirolak Okendo plazan.

16:30
Haur parkea Isla plazan.

17:00
Zero Sette akordeoi orkestraren emanaldia Okendo plazan. Jay band bertsoiak.

18:00
Sardina-jate herrikoia Okendo Plazan. Aterpeak antolatua.

18:00
Sagardo-dastatze herrikoia Okendo plazan. Ttakun K.E.-k antolatua.

18:30
Dantza gidatua, Okendo plazan Ttakunen eskutik.

20:00
Haurrentzako apar-festa Elizatze plazan.

22:00
Berto-festa Manuel Lekuona Kulturetxean, parte-hartzaile hauekin:

Gai-jartzailea
Unai Muñoa

Bertsolariak
Amaia Agirre
Ane Labaka
Ametz Arzallus
Andoni Egaña
Beñat Gaztelumendi
Patxi Etxeberria



Oharrak
Aldez aurreko salmenta, ekainaren 18tik aurrera, 18:00etatik 21:00etara bitartean, Manuel Lekuona Kultur-etxean:
Dantza erakustaldia Leihatilan 3,50 euro
Internet bidez 3,24 euro
Bertsolariak Leihatilan 4,70 euro
Internet bidez 4,32 euro

Gomendioak:
1.- Udalak beretzat erreserbatzen du programatutako ekitaldiren bat ezinbesteko arazoengatik aldatzeko, kentzeko edo bertan behera uzteko eskubidea.
2.- Pertsona guztiei arren eskatzen zaie kasu egin diezaietela Udaleko enpleguengandik edo agintaritzako agenteengandik jaso ditzaketen agindu partikularrei, eta, bestalde, ez ditzatela oztopa DYArean lanak, festetan esku hartu beharrean gertatuz gero.
3.- Parte hartu, ondo pasatu, baina kontuan izan besteenganako errespetua.
4.- Errespetatu kaleko altzariak, lorategiak, kale-plazak, etab., lasarteoriatar guztien eta zerorren onerako.
5.- Ez oztopatu ez garbiketako lanak, ez udal zerbitzuenak; kontuan izan zenbaitek lan egingo dutela, gainerakook festetan ondo pasa dezagun.
6.- Debekatuta dago petardoak, suziriak edo antzekoak saltzea.
7.- Gogorarazten da debekatuta dagoela 18 urtetik beherakoei alkohola saltzea.
8.- Edaten baduzu, ez gidatu.
9.-“CORREFOC”-a: ikuskizun honetan parte aktiboa hartzeko arropa egokia erabiltzea gomendatzen da: kotoi-arropa, mahuka luzeak eta txanoa (inongo ehun akrilikorik). Jantzi egokirik gabeko parte-hartzaileen kezak ez dira kontutan izango.
10.-Kale Nagusia itxia egongo da ibilgailuen trafikorako, 2 zenbakitik 32 zenbakira bitarte, ekainaren 27ko 11:00etatik uztailearen 01ko 05:00 arte.

22:30
Koreografia lehiaketa Okendo plazan. Kukuka dantza eta antzerki eskolak antolatua.

23:00
Dantzakiak Ibai Berriak taldearen eskutik Isla plazan.

00:00
Zezen-suzkoa Kale Nagusian.

Astelehena 30

09:00
Amalur Txistulari eskolakoek diana joko dute. Extremadu-

rako danborileroak ere ibiliko dira.

10:00
Esku pilotako benjamin, blebin, infantil eta beteroenen herriko txapelketa eta Emakumezkoen pala txapelketako finalak Loidibarreneko frontoian

10:30
Lerroko-dantzak jubilatuen eskutik Okendo plazan.

11:00
Haur Parkea Isla plazan.

11:30
Umeen Bolo eta Toka tira-da Okendo plazan.

12:00
Munduko gastronomien dastaketa Okendo plazan. Gure herrian elkarrekin bizi diren kulturen gastronomiako plater ezberdinak dastatzeko aukera: Virgen del Guadalupe elkarte, Rumanía Asebal elkarte, Argentinarra...

12:00
Extremadurako danbolineroren emanaldia Okendo plazan.

17:00
Ostargi elkarteko Erraldoi eta Buruhandien irteera, kalejiran Andatza plazaraino igoko dira.

17:30
Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Ane eta Piratak kantuan eta dantzan Andatza plazan.

19:00
Herri-jolas ibiltariak Dinbi-Banda eta Ostadarren eskutik, Andatza plazan hasiko dira.

19:00
Biyak-Bat konpartsaren irteera. Oriako Txaranga lagun dutela, zaharren egoitzatik abiatuta herriko kaleetan barrena ibiliko dira.

23:00
Su artifizialen ikuskizuna Astondoa Piroteknia famatuak botako ditu Atsobakarko parketik.

23:00
Dantzaldia London taldearekin Andatza Plazan.

00:00
Zezen-suzkoaren entzierroa Kale Nagusian.

Ondoren,
Laiotz taldearen emanaldia.





SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU !

Largoenea I , Tel.: 943 371047
Lasarte-Oria





Garmendia
OIKALAK
ONDO PASA
SAN PEDROTAN!
Uistin kalea 11
Tel.: 943 376947
20160 LASARTE-ORIA



aterpea
lasarte/oria
HERRIKO JAI ZORIONTSUAK OPA DIZUEGU!
SARDINA-JATEA,
Ekainaren 29an
Okendo plazan
arratsaldeko 18:00etan



AUTOESKOLA IZARRA AUTOESCUELA
www.autoescuelaizarra.com
AZTERKETA TESTA
Euskeraz/Gastelaniaz
Matrikula 10%
ONDO PASA FETETAN!
Bideo argigarriak eta intensibo testak On-line
Etxean edo Autoeskolan
PRESTATU ZAITEZI
Geltoki Kalea, 11 - behea (Lasarte) Tel.: 943377005



GOXOKIS GOXUA
OSO ONDO PASA HERRIKO FETETAN!
Geltoki Kalea 9 behea • Tel.: 637 462666



Bideo Lagunak TIEN 21
Etxekotresna elektrikoetan adituak
Eskaintza gehiago Facebook-ean, Jarrai gaitzazu!
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!
DENA ORDAINDU
6 hilabetetan interesik gabe
12 hilabetetan interesik gabe
21 hilabetetan (UTB %2,23)
Me gusta
Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | www.bideolagunak.com

Gaur Sorgin Jaien txanda

Aurten Sorgin Gunea Okendon izango da ere eta gaurko txupinarekin Ostadar eta Xirimiri elkarteak omenduko dituzte Sorgin Jaiakeko kideek. Aurten Sorgin Jai gazteek antolatutako festa izatetik at, "gaztetasun" ezberdinekoek ere prestaketan esku hartu dute eta mota guztietako ekintzak prestatu dituzte.

Osteguna 26 Pijama eguna

- 18:30**
Koadrilen jaitsiera EONIAN elektrotxarangarekin, Loidi-Barren pilotalekutik Sorgin Jaien gunera.
- 20:00**
Txupinazoa Okendo Plazan. Omenduak Ostadar SKT eta Xirimiri elkarteak. Txosna irekiera.
- 21:00**
Gazte afaria Okendo Plazan.



- 22:00**
Rezibatukada herrikoia Okendo Plazatik herriko kaleetan zehar.
- 23:00**
Kontzertuak Okendo Plazan:
- Elbereth
- Joxpa

Ostirala 27

- 14:00-14:10**
Barra libre.
- 17:00**
Lokal poteo girotua koadrilen lokaletatik.

- 21:30**
Zikiri jana.

- 03:00**
Koadrilen arteko jolasak Okendo plazan.

Larunbata 28

- 14:30**
Bazkari herrikoia, Tximistarrera parkean.
- 16:00**
Lasarte-Oriako orientazio herrikoia proba luzea.
- 16:30**
Lasarte-Oriako orientazio herrikoia proba motza.
- 17:00**
Mus txapelketa Okendo plazan.



19:00
Kalimotxo prestaketa
lehiaketa Okendo plazan.

20:00
Kale kontzertuak edo mikro
irekia.

Igandea 29
San Pedro eguna

10:30
IV. Bakailao txapelketaren
hasiera.

12:00
Bakailao txapelketaren
amaiera.

Jarraian,
sari banaketa izango da.

12:30
Txapelketako bakailao pin-

txoak txakolinarekin dasta-
tzeko aukera.

00:10
Kontzertuak Okendo
plazan:

Estriknina

Odolaren Mintzoa

Astelehena 30

11:00
Artisau azoka Okendo
plazan.

20:00
Antzerki eta dantza emanal-
dia Okendo plazan.

Itxieran
Barra libre eta globo gerra
Okendo plazan.



Oharrak

- **Gazte afaria:**
Txartela 8 euro. Asteazkenara arte salgai
egon dira.

- **Lasarte-Oriako orientazio proba**
herrikoia:

Proba Luzea:
30 puntu
2 ordu gehienez
Proba motza:
18 puntu
1 ordu eta 20 min. gehienez

Proba bikoteka burutu beharko da. Denbora
guztian elkarrekin joan beharko dute.

Proba motza gurasoak 12 eta 17 urte bitarte-
ko seme-alabekin egin dezakete.

Proba luzean gehienez 60 bikote eta mo-
tzean 40 bikote onartuko dira.

Izena ematea, egunean bertan egin beharko
da Okendo plazan. Bikoteko 3 euro ordain-
duko dira.

Denboratik kanpo iritsiz gero puntu guztiak
galduko dira.

Antolakuntza ez da kargu egingo partehartzai-
leek eduki dezaketen arazo fisikoek.

- **Mus txapelketa:**
Izena ematea egunean bertan egingo da.

- **Bazkari herrikoia:**
Mahaia, aulkiak eta edariak eskura egon-
go dira.

Edaria nahi adina egongo da: sagardoa,
ura eta ardoa

Edariko txartelak 2 eurotan, Artizar, Gure
Etxea, Avenida, Trumoi eta Ilargin eskuragarri.
Janaria prestatu eta bazkaltzeko beha-
rrezko tresnak (parrillak, ikatza, eltzeak) eta
bere janaria eraman beharko du.

- **Kalimotxo lehiaketa:**
Bakoitzak bere ardoa eta osagarri sekre-
tuak eraman behar ditu.
Bestetik "koka kola" eta jelak antolatzaileek
jarriko dituzte.
Izena ematea egunean bertan egingo da.

- **Sorgin Jaiak ez da kargu egiten bertan**
gerta daitezkeen ezbeharrez.

- **Sorgin Gunean ez dira eraso SEXISTA,**
ARRAZISTA, HOMOBOFO eta FAXISTA-
rik onartuko.

- **Herritarrek Sorgin gunea txukun manten-**
tzeari erregutzen dute Sorgin Jaiak.

- **Era berean, herritarrei edalontzien berrera-**
bilpena eta ekimenetan aktiboki parte har
dezaten animatzen die.



OSO ONDO PASA
HERRIKO FESTETAN!



Juan XXIII.a plaza
Lasarte-Oria

Eguerditan ere
irekita daukagu!





Erabateko gutizia aurkituko duzue gure produktuetan!

ASKO DISFRUTATU HERRIKO JAIETAN!



GURE KALITATEA DASTATU

- Gure ogiak:**
- Cristal
 - Molde Cristal
 - Parisien
 - Txabola
 - Mendiko
 - Bastonelli
 - Leña ligth
 - Espelta
 - Manantial
 - Artoa
 - Salud
 - Artoa zerealekin
 - Aleman
 - Molino
 - Verde
 - Centeno molde



Gure ogi FAMATUENA CRISTAL OGIA



Bila bazabiltza, hementxe duzu



gure BETIKO kafea



Pablo Mutiozabal 3 • Tel.: 943 364121 • 20160 LASARTE-ORIA

Plazaolako trenaren mendeurrena

Lau hamarkadatan zehar, Plazaolako trenak Donostia eta Iruñea arteko bidea egin zuen

Lasarte-Orian trenak garrantzia handia izan du. Egun Euskal treneko gertokia dugu, bakarririk. Baina lehen Hipodromo etorbidean gertokia eta Tajamar errotarian Plazaolako trenaren zubi zegoen. Oraindik bide honetako aztarnak gertan dira gure herrian, Loidiko tunel eta zubiak, esate baterako. Plazaolako tren garrantzitsua izan zen gure eremuan, ez bakarrik jendea garraitzeko, guda garaian janari kontrabandoa eta estraperloirako.


TXINTXARRI

Urtarrilean, Plazaolako trenak edo tren txikiak ehun urte bete zituen. 1914ko urtarilaren 19an bain zuzen, egin zuen bere lehenengo bidaiak eta bidaiariak lehenengoz eraman zituen Donostiatik Iruñeara. Hala ere, tren honek urte batzuk lehenago egin zituen bere lehen bidaiak. Hitu garai ezberdin bizi izan zituen nek.

Meatzaritza
1893. urtean, suntu zen Plazaolako trenaren aurrekaria izango zena.

Bidea luzatzea
Burdinbidearen xedea Berastegi eta Andoainen artean zaiden 22 kilometroak lotzea zen.

Plazaolako ibarcan zaiden Bizkako burri-meatzaritza Andoainen muntzala garrantzi handia izan zen.



Otarango eta Loidiko zubietatik igarotzen zen Plazaolako trenak.

Ordian, zerbitzua luza-izea hobereina izango litzatekeela ikusi zuen elkarrekin. Bi lur kontzesio egin ziren hau lutzatzeko bat Iruñea eta Plazaola artean 1910. urtean eta hurrengo urtean, Andoain eta Lasarte artean, 7,976 km.

Hauetako esker, bidaiariak eramateko baimena lortu eta bidaiariak eta minek jarraitu zezakeen espresak.

Zailtasunak
Lanak egiten hasi ziren, baina lehenengo berruntan ibilbidea hainbat zailtasun aurri egin

ko, tren-makinentzako zubi bikarria zegoen.

Lasarteko tren geltokian Melara interbentorea zegoen. Honen hitzetan, 40ko hamarkadan, trenak ez zuten jende ezaguna kuestan gerta-zen zen bakarrik.

Kompetentzia
Enpresak zerbitzari bultzada eman nahian zapal tren-makina berririk ez zuten eta hontan esker, hiru tren ibiltzen ziren zentzu baliokizian.

Lehen urte horietan, minterala eta perisionen garrantzia zuzen zuten. Garratxo kuartelak 14,30 pezeta balio zituzten lehen mailan joan nahiez gero; hirugarren mailakoak bertiz, 7,10 pezeta.

Hala eta guztiz ere hasieratik, burdinbideak ez zuten elkarrekin espere zuten helburu ekonomikoak bete.

Bi arrazoi nagusi izan ziren, meategien ustiakatzen Aldaketa hau egin Urbil merkatalgunearen ondoan egin zen.

Bertan Vascongados-en eraikina erabiltzen zen eta bide batekik bestera mugitzea

senigrafiaiosu.com
ASKO DIBERZUTU HERRIA (JAITZAN)
Kamiseten inprimaketa
Txiskeroak
Industria nahiz iragarri senigrafia
Binirozko pegatinalak
Boilgailoak, etb....
943 37 19 54

DISFRUTATU FESTEJAN!
Ríojanos
Erretegia
Afarriak, bazkariak, pintxoak, ...
Uisitán kalea 13 • Tel.: 943 362720 • LASARTE-ORIA

Gerra zibilean eta ostean, kontrabandoa eta estraperloia izan ziren Plazaolako trenean. Lasarte-Orian hainbat pasadizo daude honen harira

1950ean, modernizazio plana jarri zen martxan eta Nafarroako beste puntu batzuk lotura egiteko aukera ikusi zen. Zingetzatik Iruñea, 44 kilometroko daudea erabiltzeko, Lasarte-Orian bi kilometro erabiltzeko, Loidiko zubiak hasi eta Azkorene bide-raino.

Hainbat zati bide berde dira eta oinez edo txiringaz egin daitezke. Plazaolako bidean Gipuzkoa eta Nafarroa artean 44 kilometroko daudea erabiltzeko, Lasarte-Orian bi kilometro erabiltzeko, Loidiko zubiak hasi eta Azkorene bide-raino.

Hala ere, trenak Olokitik Andoainera egurra garraiatzen jarraitu zuen urte batzuetan. 1958. urtean, trenbidea erabiltzeki utzi zitoten eta bideak kentzeko baimena lortu zen.

Era honetara, Lau hamarkadetan zehar, Nafarroa eta Gipuzkoa batu zuten tren zati zen Plazaola, Plazaolako tren edo Tren txikia izenez ezagututako tren des-ageratu zen.

Gaur egun
Egun Plazaolako ibilbideko Tren txikiak.



Egun Tajamar errotaria, dagoen lekuan Plazaolako trenaren zubi bat zegoen.

KURUTXETA

izateari utzi zitoten eta usiakiak gutzit gelditu zuten. Bestalde, burdinbidea baino azkarrago eta merkeago ziren garraiobideek ere ez zuten lagundu. Bide zabaleko tren eta autobusak ibilbidea denbora gutxiagoan egiten baitzuten, nahiz eta autobusen kasuan, Azpitrozeko gaina igaro behar.

30eko hamarkadan motoren zerbitzua hobetzeko asmoz, baina dagoeneko enpresaren egoera ekonomiko oso larria zen.

Azken saiakerak
Trena berrindartzeko beste saiakera batzuk egin ziren hurrengo bi hamarkadetan.

ETXARRI DIGITAL
943.361.484 Nagusia 17 LASARTE-ORIA
STAN PEDRO JAIA 2014
KIOSKO DIGITALA
ERREBELATU DIGITALEKO MAKINA BERRIA
Errebelatu DIGITALA ORDU ERDIAN KARTEEN errebelatua EKONTZETAKO erreportajeak ESTUDIOKO erreportajeak makina DIGITALAK 30X90 neurrirainoko ANPLAZIO DIGITALAK Markoak jartzeko tailerra Opari personalizatuak

Josu Agirretxe eta Mikel Amenabar Islada Ezkutatuak

“Ezkutuan egon diren istorioak, argitara atera behar ditugu”

Gerra eta frankismo garaiko 40 testigantza baino gehiago jaso ditu herriko taldeak

Dagoeneko bi urte dira herriko Islada Ezkutatuak taldea sortu zela. Taldeko kideak, taldea sortu baino lehenagotik ere, lanean ari dira gerra eta frankismo garaiko lekukoak jasotzen eta oro har, informazioa biltzen. Kezka ezberdinek bultzatuta hasi zen herritar talde hau lanean, batzuek desagertutako senideak dituzte, hildakoak, kuriositate hutsez besteak, edota isilpean, “alfonbra azpian ezkutatuak” izan diren istorioak argitara emateko beharra argi ikusi zutelako. Josu Agirretxe eta Mikel Amenabarrek azaldu digute orain arteko lana.

Maidar AZURMENDI

Duela ez asko, mendian lanean egon diren lubakiaren berri eman behar izan zuten Isla Ezkutatuak taldeko kideek. Esku granada bat topatu eta Ertzaintzak lehertu behar izan zuten. Seguritasunagatik publiko egin zuten burutzen ari ziren lana. Orain arte 40 testigantzatik gora jaso dituzte eta lubakian lanean dihardute izan ere, testigantzen arabera, bertan milizianoen gorpuk daude, “kopurua ez dakigu, testigatza batzuen arabera sei, beste batzuen arabera 20 baino gehiago izan daitezke”.

Nolatan hasi zineten gerra eta Frankismo garaia aztertzeke lanetan?

Duela ia hiru urte, modu informalean herritar batzuk hasi ginen gaiaren inguruan zerbait egin behar zela eta ikerketa xume batzuk egiten. Beste herrietan lanean ari ziren memoria historikoaren aldeko taldeak eta guk ere zerbait egin behar genuela pentsatu genuen. Horrela hasi zen dena.

Joan ginen pixkanaka sarea osatzen, biktimen listak egin genituen, benetakoak

ziren egiaztatu eta konturatu ginen bazegoela materiala lanean hasteko.

Oinarria baguenen eta Aldundira joan ginen gaiaren inguruko bilera batera. Herri mailan lanean dauden taldeei zuzenduta zen batez ere diru laguntza larroei buruz. Bilera horretan ikusi genuen beharra talde bezala martxan jartzeko, 2012ko abenduan aurkeztu genuen Islada Ezkutatuak.

Testigantzak jasotzen hasi zineten berehala?

Bai hala da. Mendiko txokoaren inguruko informazioa izan genuen hasiera batean eta bertan lanean jarri ginen, garbiketa lanak egiten batez ere. Gorpuzkinak bazeudela esan ziguten eta.

Aranzadirekin harremanetan jarri ginen eta euren informazio eta artxiboak gure eskura jartzeaz gain, hainbat argibide eman zizkiguten ere. Aranzadiko adituek aipatu ziguten lehentasuna eman behar geniela testigantzei, adineko pertsonak izanda, ahalik eta gehien jasotzen saiatu behar ginela. Berehala konturatu ginen, premiazkoa zela lan hau egitea, izan ere, elkarrizketa egitera iritsi baino lehen zerrendan genituen pertsonak hil zaizkigu.



Mikel Amenabar taldeko beste kideekin batera mendian egiten ari diren ikerketa lanetan.

Testigantza hori betiko galteza dakar garaiz ez ibiltzeak.

Mendiko lubakia, testigantzak eta artxiboak ikertzea dira gure lan larroak eta hiru esparrutan dihardugu baina testigantzak dira lehentasuna.

Txatarraz gain, katak egiten ari gara gorpuzkinak topatzeko. Udazkena izan daiteke garai onena, orain garbiketa lanak egitea alperrik da. Bi gorpu zehazki non dauden jakin dezakegu testigantza bat badagoelako baina ingurua asko aldatu da, herritar batek, kostata esan zigun bi fusilamendu ikusi zituela. Bere damua zuen oraindik, hildako bati botak kendu zizkiolako.

Zenbat testigantza jaso dituzue?

40tik gora. Buruan genuen gerra herritik pasa besterik ez zela egin baina hildako, ihes-

lari, desagertuak, errepresaliatuak badaude. Historiaren alde hori, orain arte gordeta egon da Frankismoak interesik ez zuelako izan bere txapuzak jakitera emateko eta ondoren ere, herriko agintarietara inongo interesik ez zuten jarri gaia ikertzeko.

Herriko familiek beharra zuten bizitakoak kontatzeko?

Denetarik ikusi dugu. Batzuk ez dute hitz egin nahi, iraganezko gauzak direla diote baina beste batzuk gogoz hitz egin dute, zain zeuden barrua husteko. Hitz egin nahi ez duten pertsona batzuen kasuan, barrenean oraindik beldurra dutela antzematen dugu. Askok sufritu zuten eta min handia eragiten die gogoratze hutsak.

Garai hartako gertaerak, oso presente daude, nahiz eta

zuzenki gerran parte ez hartu, beldurra oso nabaria da, senideak espetxean, gerran etab. izateagatik markatuta egon zirelako familia osoak. Beharra dutenen kasuan, kontutan izan behar da 40 urtetan inor ez zaiela joan, ez dute bidea ikusi dakitena azaltzeko eta orain bai topatu dute aukera.

Herritar batzuek uste dute ez dutela ezer esateko “etxean gutxi kontatu ziguten, ez zen hitz egiten” diote baina detaile bat, beraientzat hutsala izan daitekeena, guretzako pista izan daiteke, beste testigantza edota dokumentuen laguntzarekin puztzea osatzen lagun gaitzake. Askok arakatu behar da eta uste baino lan gehiago da baina ezin dugu utzi.

Bestalde, jakin badakigu, beti geratuko dela historia irekia. Jendearen borondatez ari gara osatzen eta testigantza



Kale Nagusia 46 • Tel.: 943 370885

**AINHOA
TABERNA**

Razioak
Pintxoak

ASKO DISFRUTATU FESTETAN!

Etorri dastatzera!



ematera animatzen ez direnak hor geratzen dira, jaso gabe, osatu gabe. Aipatu behar da jaiotzez lasarteoriarrek ez diren pertsonen testigantzak ere jaso ditugula, euren herrietan bizitakoak kontatu dizkigute eta oso aberasgarria da guretzako.

Lasarte-Orian gerra pairatu zen beraz ...

Bai noski. Gauza da herri txikia zela hau, biztanle kopurua kontutan hartuta, ondorioak latzak izan ziren. Lasarte eta Oria ia hustu egin ziren. Zerbaitegatik gertatu zen hori. Hildako herritarrek ere ez dira gutxi.

Egia da hilabeteak ez zituztela egin hemen borrokan baina egun batzuk bai eta errepresioa gogorra izan zen urteetan. Adibidez, badakigu, lau lasartear Errusian egon zirela umetan, emakumeei ilea mozten zitzaizela. Jazoera oso gogorrek izan ziren gurean.

Nolakoa izan zen Lasarte-Orian gerra?

Hemen fronte bat izan zen Andoaindik, Tolosatik zetozen erreketek eta frankistek Donostiara sartzeko erabili zutena. Lasarte eta Andoain artean gelditu arazi zituzten. Frontea osatu zutenak milizianoak ziren, Ermua eta Elbar aldeko milizianoak. Atzetik harrapatu zituzten frankistek eta denak garbitu. Hauen gorpuzkinak dira ustez lubakian daudenak.

Gerra, bailaratik pasa zen, Lasarteko lurrak izan ez arren, guk lan eremu bezala hartu dugu ingurua. Lubakiaz gain, Lasarteko jendeak parte hartu zuen fronte ezberdinetan, Hipodromoa armamentu biltegia zegoen, hegazkinak mugitzen ziren bertatik eta hemen ere parte hartu zuten herritarrek.

Lasarten 1936ko irailaren 13an sartu ziren frankistak, Donostia hartu zuten egun berean.

Bonbardaketak egon ziren bailaran. Testigantzek esan digutenaren arabera, gauez ikusten zen Iru Bidetik pasatzen Donostia eta inguruko

jendea ihesi karroekin, kotxeekin, ilunpetan kosta aldera, Bilbora batez ere ihesi.

Fusilamenduak gertatu ziren inguru horretan ere, lekukoek diote, herritarrek tiroak entzuten zituztela eta hurrengo goizean, kasu batean aitona bilobekin joaten zen hildakoak ikustera eta karea botatzen zuten gainean.

Herrira bueltatu ziren herritarrek zer aurkitu zuten?

Errepresioa eta ondorioak batez ere izan ziren herrian pairatutakoak. Bilbotik, Santandererara joan zen jendea ihesi, Iparraldera gero eta gerra amaituta, herrira bueltatu zen jendea, ezer gabe aurkitu zen. Ondasun guztiak lapurtuta, zerotik hasi behar izan ziren. Gerra aurretik, herrian liskarrak omen zeuden, nazionalistak eta sozialisten artean, Lasarten nazionalistak gehien eta Orian, fabrikekin lotura izanda, sozialistak.

Gerora sufrimendua izan zen nagusi eta liskar eta lehia politikoak ahaztuta geratu ziren.

Lana lortzeko markatuta zeuden familiak. Herriko frankistek ez zioten zenbait jenderi baimena ematen lana egiteko, zerrenda beltzak zeuden, zerotik hasi behar izan zuten baina oso baldintza txarrekin.

Frankismoaren ikuspegia jaso duzue?

Frankoren aldekoek bere historia kontatzeko aukera izan dute. Guk ezkutuan egon direnak ezagutzera eman nahi ditugu baina bai, behar ditugu ere argazkia osatzeko. Kontutan izan behar dute guk ez ditugula epaitu nahi eta kasu batzuetan ere jakin behar da zergatik izan ziren frankisten aldeko, batzuk behartuta joan zirela badakigu.

Oztoporik izan duzue lanean?

Oraindik artxibotan lan asko egiteko aukerarik ez dugu izan. Andoain, Urnieta eta



Metal detektorea eskuratu behar izan dute lubakian lanak egin ahal izateko.

Hernaniko artxiboetan egon gara eta zerbait lortu ahal izan dugu. Bilbo eta Salamanca edo Galizira jo behar dugu eta nahi dugu horietan ere arakatu baina aurrerago izan beharko du.

Hala ere, Lasarte-Oria herria ez zenez, Hernani edo Urnieta jartzen zuen jaioterri eta desagertu, hildakoen kasuan hemengoak zirela jakiteko banan-banan non bizi ziren ikusi behar izan da eta beti ez da zehazten.

Testigantza eman zutenei omenaldia egin zenieten.

Beharrezko ekimena izan zen guretzat. Omendutako jendeak oso ondo hartu zuen, barrena husteko aukera izan eta ondo hartuak izan zirela ikustea garrantzitsua izan zela pentsatzen dugu. Nahiko ekimen simplea izan zen. Bide batez, uste dugu, horrek jende gehiago animatu duela hitz egitera.

Dokumentuak eta argazkiak eskatzen dizkiegu herritarrei euren testigantzarekin batera eta oso gauza bitxiak agertzen dira. Adibidez, eraztun bat, senarra Iruñeako espetxean egon zen eta eraztuna egin zuen domino fitxa batekin. Eskutitza bidali zion emazteari hil baino lehenago. Aranzadik eskatu du hau eta euren liburuan sartuko dute eraztun honen istorioa.

Dokumentuei dagokionez, Andoni Arozenari orduko



Munizioa eta bestelako gerra materialak topatu dituzte.

Jaurilaritzak eman zion baimeana jaso dugu. Honetan haurrak bere ardurapean Ingalaterrara eramateko baimeana aitortzen zitzaion. Dokumentoa errestauratzen ari dira.

Lubakian espero ez zuten armamentua topatu zenuten.

Bai, esku granada bat aurkitu genuen lubakian eta Ertzaizaintzari abisua pasa behar izan genion. Etorri eta haiek leheratu zuten. Hain zuzen, arrazoi hau medio ez dugu zabaldu nahi non dagoen zehazki lubakia, arriskutsua izan daiteke.

Guretzat ere arriskutsua

dela badakigu eta garbiketa lanetara goazenean oso kontuz ibili behar dugu. Detektore bat erosi dugu eta hainbat argibide eman dizkigute lanean jarraitzeko.

Horregatik herritarrei eskatzen diegu arduraz jokatu eta ez gerturatzeko inguru horretara.

Lana bukatzen dugunean publiko egingo dugu eta jendeak aukera izango du lekua ikusi eta bertan gertatutakoak ezagutzeko.

Asmoa badugu, lana bukatutzat ematen dugunean, lubakira eta Hipodromoko munizio biltegietatik ibilaldi bat egiteko gerra nondik ibili zen azaltzeko.



Ondo pasa San Pedro Jaiak!
Ttirriki, ttarraka Lasarte!

Musika eskola berria Irailetik aurrera!

www.facebook.com/ttirrikittarraka

Olaia 685 72 51 79

Lierni 655 91 34 55

Sasoia eta umorea 50. urtez

ATCKo saskibaloia taldea 1964ean sortu zen eta mende erdia egin dute elkarrekin

Santa Ana Parodia, Inauteriak... edozein jai edo saltsatan ikusten dugu emakume talde hau bere umore ona zabaltzen. Duela 50 urte batu ziren saskibaloia taldea sortzeko, ATC-ko taldea, eta geroztik adiskidetasun sendoa sortu dute. Urrezko neska ezizenarekin ere ezagunak dira. Taldeko hiru kiderekin izan gara haien historiaz gehiago jakiteko, umorea eta oroitzapenak ez dira falta izan.

Nerea EIZAGIRRE

ATC enpresako neska talde batek sortu zuen Lasarte-Orian emakumezkoen lehen saskibaloia taldea 1964. urtean. "ATC fabrika lan egiten genuen eta zuzendariari eskatu genion izena eraman al genuen. Kamiseta zuri batzuk erosi genituen eta hauetan taldearen izena jarri genuen" azaldu digute Mari Karmen Mercero eta Rosarito Echeverriak.

"Gehienak ATC-n lan egiten bagenuen ere, Lasarteko neska batzuei ere eskatu genien taldean sartzeko, altxuei," adierazi digute.

Barre artean aipatu digute saskibaloia aukeratu zutela kirol fina iruditzen zitzaielako, "kirol finena zela uste genuen, futbola eta eskubaloia ere bazeuden, baina guk finagoa nahi genuen, Lasarten Benito zegoen eskubaloia entrenatzaile, baina emakumeen-

tzako talderik ez zen. Orain Bera-Bera eta beste batzuk daude baina orduan ez. Saskibaloian inguruan taldeak zeudela bagenekien, La Medina, Real Sociedad eta orduan kirol hori aukeratu genuen".

"Hemezortzi eta hogeita bi urte artean genituen orduan, orain ikastolan txikitatik hasten dira. Orain erretiroa hartzen dutenean, guk gure lehen partidak jokatu genituen. Eta boom bat izan zen Lasarten ez baitzegoen emakumeentzako kirolak. Gutxi batzuk arazoak zituzten etxean, ez zuten ulertzen guk kirol batean aritzea," aipatu digute.

Hala ere, sortutako arazoei umorez aurre egin eta irtenbidea aurkitzen zioten, "ez genuen txandalo, botarik... Botak bakoitzak bereak erosi behar izan zituen. Beraz, gure entrenamenduak oso deigarriak ziren, lanetik atera eta aldatu gabe, botak bakarrik jantzen genituen. Egun horre-

tan soinekoa, kristalezko galterdiak edo gona estua bagenuen berdin zen, horekin entrenatzen genuen. Partidetan aldaketetan etxeko jertse lodia jantzen genuen. Bigarren urtean, berriz, txandalak eta poltsa erosi zitxigun enpresak, baita baloiak ere".

Non entrenatu ez

Eta nahiz eta lehenengo Eskola Berrietan ematen zigten. Partidetan aldaketetan etxeko jertse lodia jantzen genuen. Bigarren urtean, berriz, txandalak eta poltsa erosi zitxigun enpresak, baita baloiak ere".

"Hasieran Saustako maldan hasi ginen entrenatzen eta argirik gabe entrenatzen genuen. Arratsaldeko zazpietarako ilun zegoen, zeren eta orduan ez baitzen ordu aldaketarik. Orduan, bat saskiaren azpian jartzen zen, besteak baloia jaurti eta "sartu da?" galdetzen zuten. Imajina ze entrenamendu ziren horiek".

Zerotik hasi

Gainera, zerotik hasi zirela ere onartu dute, "guk ez genuen ideiarik saskibaloia buruz. Baloia saskian sartu behar zela eta baloia batak besteari pasa behar geniola. Hala ere, nahiz eta ezer ez jakin, batzuk kirolari apartak ziren eta pixkanaka ikasten joan ginen. Baloia nola hartu eta pausoak nola eman... denetarik ikasi behar izan genuen".

"Baloia hartzeko eskuak nola jarri ere ez genien eta nik hatz batzuk okerrak ditut horregatik," azpimarratu du Mercero.

Ondo pasatzera

Entrenatzen hasi, astean behin, eta bi hilabeteetara partidekin



Inaugurazio torneoaren irabazleak ATCKo taldeak.

hasi ziren "etxeko partidak jokatzeko baimena Eskola Berrietan ematen zigten. Aldatzeko gelak erabiltzen genituen eta ez zegoen dutxarik. Bakoitza bere etxera joan behar izaten zen".

Partidak igandetan jokatzen zituztela azaldu dute, "guretzako igandek gozatzeko egunak ziren. Partida, haraino joan lineako autobusetan... Hondarribira joatea esaterako egun pasa egitea zen. Saskibaloia kantxetara poztasuna eraman genuen".

Lehen urtea oso dibertigarria izan zela azpimarratu dute. "Azkenak izan ginen. Irabazi genuen lehenengo partida are rioa agertu ez zelako izan zen. Partidetan jipoiak besterik ez genituen jaso hasieran. Baina horrek ez gintuen apaltzen gu gozatzera joaten ginen".

"Gure lehen partidari, La Asuncionen euria besterik ez zuten egiten eta 25-4 galdu genuen Tolosako La Asuncionen aurka. Milagrosek sartu zituen lehen bi saskiratzeak".

"Medinak, orduan talde indartsuena, jipoi ederra eman zigun lehen urtean. Baina haiek ere egurra jaso zuten. Oso finak ziren eta gu lurrean borroka egiten genuen. Gainera, hemengo kantxan zuloak

zeuden. Gehienetan euria zegoenez putzuak sortzen ziren eta nahita hauetan hanka sartu edo baloia sartzen genuen haiek zikintzeko", onartu dute algararteak.

"Lehen urtea horrela izan zen eta gure ideia hiru saski sartzeko eta arerioak 25 baino gehiago ez egitea zen. Lehen urtean ederki borrokatu ginen," gaineratu dute.

"Bigarren urtean esperientzia gehiago genuen eta kide batzuk taldea utzi zuten. Orduan sartu ziren Manoli, Sorrondegitarak, Lurdes... Eta partidak irabazten hasi ginen. Hori oso garrantzitsua izan zen guretzat. Ez genuen inoiz umorea eta gozatzeko gogoia galdu".

Trofeoak eta selekzioak

"Hirugarren urtean Inaugurazio torneoaren irabazle genuen partidari galdu gabe. Hori guretzat oso garrantzitsua izan zen, imajina ezazu!!! Urnietan ere torneo bat irabazi genuen jaietan".

"Orduan Manoli profesionala egin zen" aipatu dute barre artean eta honek "Mertxe eta biok Gipuzkoako selekzioarekin entrenamenduak egin genituen eta nik Kantabriako Jokoetan parte hartu nuen besterik ez".



Taldearen entrenamendua hasi eta hiru hilabeteetara jokatu zuten lehen partida.

aldika 
produktu bereziak
 ahatekinak
 ehizak eta hegaztiak
 bakailao gezatua
 ondoak
 marinatuak
 olagarroa

HERRIKO JAI ZORIONTSUAK OPA DIZUEGU!

Industrialdea 19-20 • Tel.: 943 377089 aldika@euskalnet.net





Gabon bezpera egunetan Nikaraguako proiektu batentzat dirua biltzen zuen taldeak.

M.K. MERCERO

Partiden ostean, Ostatun geratzeko ohitura zutela ere onartu dute, "muskuiluak jaten genituen. Guretzat momentu hobereana zen. Asteazken zehar ez ginen geratzen entrenatu eta etxera joaten ginen. Lehen ez zegoen hainbesteko bizitza".

Entrenatzaileak

Baina ez pentsa hau guztia laguntzarik gabe egin zutenik, entrenatzaileak izan baitziztuzten.

"Gure lehen entrenatzailea Jose Amil katalana izan zen. Gero profesional bat kontratatu genuen, Pili Petrirena. Donostian bizi zen eta Medina taldekoa zen. Harekin hasi ginen serio lan egiten eta partidak irabazi genituen. Gure saskibaloia ezagutzak asko hobetu ziren bere laguntzarekin. Seriotasun gehiago zegoen. Amil nahi genuen bezala maniatzen genuen. Gurekin barrez lehortzen zen. Pili ere gurekin barre asko egiten zuen, baina ez zuen ezer esaten. Harekin Gipuzkoatik ateratzeko aukera izan genuen, Iruñeara joan behar ginen, baina ez zuen nahi izan. Lotsa edo ematen zion gurekin joatea!!!"

Oroitzapenak

Hainbat pasadizo ere kontatu dizkigute, "La Asuncionen behin mojek ez ziguten jolastan utzi, galtza-gona genuen eta motzegia zelako, belauetik gora zentimetro bat. Gainera, euria egiten zuenean hilea ez bustitzeko ziriekien jokatzeko genuen eta epaileak aterki erabiltzen zuen".

"Maskota bat nahi genuela ere otu zitzaigun, 25-30 zentimetroko tximua," onatu dute. "Guztia pentsatua genuen eta Bartzelonako Zoo-ko arduradunarekin jarri ginen harremanetan tximu bat lortzeko. Hark hemengo klima ez zela aproposa erantzun zuen eta inguruko animalia dendetan begiratzea gomendatu zigun. Azkenean amore eman eta Popeye panpin bat egin genuen, trapuzkoa".

Taldea utzi

Taldeak lau denboraldi iraun zituen, "hoberen jokatzeko genuean utzi behar izan genuen. Famatuak egiten hasi ginenean, trikimailu guztiak ikasi genituen..."

Izan ere, "Escola Berrietan ezin genuen jokatu dagoeneko eta Michelini eskatu genion bertan entrenatu ahal izateko. Michelinek baiezkota eman zuen baina baldintza batekin izena aldatzea. Orduan ATCtik Michelinera aldatu zen izena eta hasierako neskek utzi genuen. Gehienak ezkontzeko geunden eta gutxi batzuk jarraitu zuten taldean. Batzuk gainera saskibaloia utzi eta futbolean hasi ziren".

Baina saskibaloia utzi eta neska talde honen harremanak jarraitu zuen, "saskibaloia utzi genuean beste etapa bat hasi zen. Adiskidetasun handia sortu zen. Korrontearen aurka hasi ginen eta hortik harreman sendoa sortu genuen. Hori oso garrantzitsua izan da. Gure artean ez da inoiz gatazkarik izan".

"Taldekideak mutilak izaten hasi ziren, ezkondu,

haurrak izan etab. Inoiz ez dugu harremana galdu. Manoliren txokoan biltzen ginen, parodia ederrak egiten genituen, urtebetetze egunak edo ospakizunen bat izatea besterik ez zen behar. Urte batzuetan ezin ginen askotan bildu, baina haurrak hazi zirenean asteartero biltzeko konpromisoa hartu genuen," azaldu dute.

Ekintza ugaritan parte hartu

Gainera taldeko kideak 1999. urtean Lurdes Ubegunen gaixotasunaren ondorioz gehiago batu zirela azpimarratu dute. "Lurdes gaixotzen hasi zen. Inauterietan atera ohi zen normalean eta urte horretan bi lagunek kale egin zioten. Beraz, guri eskatu zigun eta azoka bat egin genuen Okendo plazan dirua bildu eta inauterietarako arropa prestatzeko. Gauza pila saldu genituen eta hortik aurrera, gure kaleko ikuskizunak hasi ziren, Inaute-

Adiskidetasun handia sortu zen saskibaloia taldeko kideen artean eta harremanetan jarraitu zuten guztiek

riak, Santa Ana parodiak, Maratoiak, etab. Urteurren batean ere izan ginen, Etxarriren 50. urteurrena. Goiegira joan ginen moda desfile bat egitera. Eta proposatzen dizkiguten gauza guztiatarako prest gaude. 40 emanaldi baino gehiago izango dira".

"Romoren elkarteari ere laguntzen genion eta Nikaraguako dirua biltzen genuen. Jaiotzarekin ateratzen ginen kantuan Gabon bezperan. Bartzuk guretzako zela pentsatuko zuen, baina diru dezente biltzen genuen. Duela bi urtera arte egin genuen bilketa. Bertako egoera latza ikusita krisia, langabezia... egiteari utzi genion. Bertakoek ere behar zuten eta ez genekien nori eman", azaldu digute.

Omenaldi eta momentu latzak

Omenaldiak ere jaso dituzte, Santa Ana parodian, etab. "25. urteurrena ere ospatu genuen. Gure buruari dominak, trofeoak etab. eman genion eta parodia bat ere egin genuen, noski, LOKEk ere omenaldi txiki bat egin zigun 2004. urtean.

Baina momentu latzak ere bizi izan dituztela aipatu dute, "Lurdes eta Begoñaren heriotzak kolpe latza izan ziren. Aurretik Maria Angelesen heriotza ere izan zen. Saskibaloia utzi eta atletismoan hasi zen

baina hala ere, harremanetan jarraitzen genuen. Lurdes saltsera bat zen, ospakizun guztietan zerbait antolatzen zuen, abestiak bereziak sortzen zituen... eta Begoña gure amaxoa zen. Tente jartzen gintuen".

Urrezko neskak

Orduan, ATC saskibaloia taldeko neskek izatetik Urrezko neskak izatera pasa ziren. "Bajak egon dira eta lau fitxaketa egin ditugu. Oso ongi fitxatutakoak dira gainera, pentsatutakoak Miren Zumeta, Magali Agirresarobe, Pili Arruti eta Aintzane Bergara, Begoñaren ahizpa. Beti egon dira gurekin baina dagoeneko taldekoak dira. Horregatik, ATCko saskibaloia taldeak izatetik Urrezko neskak izatera igaro ginen. Begoñak jarri zigun izena. Izan ere, saskibaloia taldekoa ez zen jendea zegoen dagoeneko taldean".

"Jende askok sartu nahi du gure taldean baina fitxaketa egiteko oso ongi aztertzen dugu pertsona. Taldea osatua dago eta adiskidetasun handia dugu," aipatu dute barre artean.

Irailean 50 urte egingo dira ATC taldea sortu zutela eta emakume sasoiu eta umore-taldek burua urteurrena ospatzeko prestakuntzetan jarri du. Ez dute aurreratu nahi izan, baina taldearen izpiritua ezagutu, ziur ikusgarria izango dela.



Santa Ana, Maratoia... edozein ospakizunetan ikusi ahal dugu taldea gozaten eta haien umore ona zabaltzen.



M^L

MARIA LUISA

ILEAPAINDEGI MIXTOA

Tel.: 943 370980

ENERITZ ESTETICA

Berrit!

Depilazioa, argizari hotza eta beroarekin
Manikura eta pedikura
Betileak tintatzea
Aurpegi eta gorputz tratamenduak
.....

OSO ONDO PASA FESTETAN!

Pablo Mutiozabal 9 behea • 20160 Lasarte-Oria



Tel.: 679 298250



San Joanek euriari eutsi zion

Dantza eta sua nagusi izan ziren Okendo plazan

Astelehen arratsaldean euria egin arren, San Joan bezperako ospakizunak baino lehen atertu eta sua lasai piztu ahal izan zuen alkateak. Hainbat herritar hurbildu ziren Okendo plazara ohiturari jarraikiz urteko gauza txarrak erretzera.



Haur, gazte eta helduek urteko gauza txarrak bota zituzten sutara San Joan gauean.

Nerea EIZAGIRRE

San Joan bezpera izan zen astelehenean. Sorgin, magia eta usadioekin lotutako gaua da. Lasarte-Orian ohiturari eutsiz eta Erketz eta Erketzeko lagunak taldeek hainbat herritar eta udal ordezkariekin batera, dantza egin zuten Okendo plazan. Ostean sua piztu zen.

Arratsaldeko euri zaparrada zela eta, herritarrek tantaka

hurbildu zituzten plazara. Hala ere, sua piztu zenerako haur, gazte eta gurasoek plaza betetzen zuten.

Ospakizunak Udaletxe zahar aurrean hasi ziren. Kalejira dantzari, udal batzar kideak eta musikariak Okendora hurbildu ziren.

Herritarrei ireki

Bertan, lehenik, San Joan bezperako dantza eta doinuez gozatu ahal izan zuten herri-

tarrek, horien artean, soka-dantza tradizionala.

Aurreko urteetan bezala, Erketz euskal dantza taldekoekin batera udalbatzarreko hainbat zinegotzik egin zuten dantza. Honela, Pablo Barrio alkateak agurra eginez udal batzar kideei dantzatu zien eta Taxio Arrizabalaga EHBil-

duko zinegotziak berriz, herritarrei.

Aurten gainera herritarrei ere gonbita egin zieten dantzari-erriek sokadantzan parte hartzera. Hainbat izan ziren soka osatu zutenak eta ederki mantendu zuten erritmoa.

Amaieran, herritar guztiak fandango, arin-arin eta kalejira

dantzatu ahal izan zuten. Eta kalejira ari zirela, Pablo Barrio alkateak sua piztu zuen.

Era honetara, lasarteoriatarrek urteko gauza txarrak erretzeko aukera izan zuten.

Jaiarekin amaitzeko erromeria izan zen Okendo plazan. Haur, guraso eta gaztetxoek ederki gozatu zuten.



Aurten dantzari eta udal ordezkarietz gain, herritarrek ere parte hartu ahal izan zuten sokadantzan.



Alkateak urtero legez, sua piztu zuen. Herritarrek kalejira dantzatzeko ari ziren.



ANORGA TXIBI S.L

ONDO PASA SAN PEDROTANI KRISTALDEGIA

• komertzial instalazioak • beira bikoitza
 • segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
 • ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

ASKO DISFRUTATU FESTETAN!

Maite Erkezia

ILE-APAINDEGIA ESTETIKA



Blas de Lezo 5, beheko
 Tel.: 943 370254
 LASARTE-ORIA

M. Berasategi

Kafeak

Nespresso kafe-makinekin bateragarriak diren kapsulak



B

1961

SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK OPA DIZUEGU!

Beti dago aukera kafe on bat hartzeko



Edozein ordutan

#SPJ2013

INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erth)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE SAPOREAREKIN e.a....

TEINA GABEAK

- MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a...

KAFE ARABIKOAK

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA

Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316
 20160 LASARTE-ORIA

Ekintzaz beteriko astea

Jaiekin zer ikusia duten ekintzaz aparte, hainbat gertakari izan dira gurean



Biyak Bateko lagunek txapelketak eta abesbatzaren emanaldia izan dituzte.



Haur eta gaztetxoek ederki gozatu zuten atzo igerilekuan izan zen Ur festan.

Juan Mari Artola parroko ohiak 50 urte egin zituen apaiz lanetan. Omenaldi txikia egin zioten asteartean.



ILLARRETA
ITURGINZA

info@illarreta.com

**HERRIKO
JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZUEGU!**



TAILERRA ETA BULEGOA:
Ugaldea polig. 8 • Tel.: 943 361752
USURBIL

ERAKUSKETA ETA DENDA
Geltoki kalea 21 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 363147



- Zink, berun eta arbelean eraikuntzak eta konponketak
- Instalazioak: garbitzeko ura, berogailua, gasa, zoru bero-emalea eta aire girotua
- Erakusketa eta salmenta: aparatu sanitarioak, kanilak, komuneko altzariak, manparak eta osagarriak

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzen eta lokalen berrikuntza osoa
- Gremioen kordinazioa
- Arreta pertsonalizatua



Lan eta Lan taldeak "Las nueras de Adan" lana eskaini zuten.



Atsotakar zahar egoitzak bere ateak ireki zizkien herritarrei. Jai giro alaiak izan zen larunbata goizean.



Gimnastikako neskek urte amiareako erakustaldia egin zuten.



Lasarte-Oriako sarian, ederki ibili ziren Buruntzaldea IKT-koak.



Kinin Calvok irabazi zuen Squash txapelketa soziala.



Ibon Fernandez Iradi herritarra aske geratzeko eskaera egin zuten hainbat herritarrek. San Pedro egunean, igandean 20:00etan mobilizazio ixila egingo da Okendo plazan.



Oreindik taldeak 5 urteko ibilbidearen ostean, bere azken kontzertua eskaini zuten.

EPEL



OSO ONDO IGARO SAN PEDRO JAIETAN !

**TXERRI-BELARRI GUTIZIAZKOAK
ETA OLAGARROA**

AUKERA IZUGARRIA

- pintxoetan
- razioetan
- ogitartekoetan
- plater konbinatueta



Goikale 1 • Tel.: 943 362701 • LASARTE-ORIA

MANOLI

estankoa

SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU !



Geltoki 15 • Tel.: 943 362492 • LASARTE-ORIA

ANTONIO URRUZOLA

ZURGINTZA
eta
EBANISTERIA



AROSZTEGIA

ONDO PASA
FESTETAN!

Etor
zaitez
erakusketa
ikustera!

Asteasuain polig., 3. pabilioia
20170 • USURBIL (Gipuzkoa)
Tel./Faxa: 943 376415
Mobila 687 845597



- Ispiluak
- Beira apaingarririk eta alakatuak
- Merkataritzako instalazioak
- Dufxako pantailak
- Kristaleria oro har

OSO ONDO PASA
SAN PEDROTAN!!



Uistin Kalea 11 (Zubieta plaza)
Tel./Faxa: 943 362352
LASARTE-ORIA



Erketz, Erketzeko lagunak eta Erketz txikikik kolorez betetako emanaldia eskaini zuten Okendon.



Bazpi eskolako jubenilak Gipuzkoako Itzulian parte hartu zuten. Jon Ander Unanue 12. izan zen.



LOKEko atal ezberdinak igandean bildu ziren denboraldi amaierako bazkarian.



Lasarte-Oriak 2 eta 1 irabazi zion Donostiari. Bihar, 19:00etan, pilotalekuan etorriko jardunaldi erabakiorra.



SUGATE SUKALDEAK

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak

ASKO DISFRUTATU HERRIKO JAIETAN!



**Pintore Kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471
Lasarte-Oria
www.sugate.net**



Fernández
e h u n a k




Nahi edo behar duzun huraxe aurkituko duzu gurean!

ASKO DISFRUTATU FESTETAN!

Kale Nagusia 2 • Tel.: 943 361607 • LASARTE-ORIA



OSO ONDO PASA HERRIKO JAIETAN!!



facebook.com/ArkupeTaberna

Errazioak
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Entsaladak

FESTETAN

**ETXEKO SANGRIA
PITXER BAT + 4 PINTXO**

8€

Tel.: 943 37 17 42

Largonea Kalea, 1
20160 Lasarte-Oria

Zorion agurrak



June

Txokolatzeko lau muxu handi gure printsesari amatxo eta aitaxon partetik



Olatz

Zorionak zure zazpigarren urtebetetzeari famili guztiaren partetik. Muxu pila bat.



Markel

Zorionak Markel. Txokolatzeko muxu goxoak famili guztiaren partetik. Ondo pasa zure urtebetetzeari Txapeldun!!!



Alvaro

ZORIONAK txapeldun!!! 6 muxu handi guraso eta Sergioren partez. Maite zaitugu!



Ekain

Zorionak bihotza!! 4 muxu pottolo familia guztiaren partetik. Askok maite zaitugu!!



Nahikari

Zorionak bihurri. Fes-tetan ondo ondo ospatuko dugu. Aitaxo, amatxo eta familia guztiaren partetik.




June

Txokolatzeko lau muxu handi gure printsesari amatxo eta aitaxon partetik



Irati

9 urte!!! Buff!!! Zorionak, muxu handi bat eta disfrutatu zure urtebetze egunean. Maite zaituguuuuu...



Saioa

Zorionak zure 10garren urtebetetzeari. Muxu pila bat etxeko partetik eta ondo ondo pasa eguna.



Mikel

Zorionak eta "primeran" pasa! Gintonikaren zai gaude! #ortukodegu. 27 muxu etxeko partetik



Unax

Zorionak txapeldun!!! 9 dagoeneko. Muxu potolo bat etxeko partetik.

— Herritarren txokoa —

Kiroldegiko ordutegia jaietan

San Pedro jaiak direla eta, Udal Kirol Zerbitzuak jakin arazten du honakoa izango dela egun hauetako ordutegia. Ekainak 28, larunbata, goizean 9:00etatik 13:00era irekia izango da; arratsaldean berriz itxita egongo da.

Era berean, igandean ekainak 29 eta astelehenean ekainak 30 kirol instalakuntzak itxita egongo dira.

Udako ordutegia kiroldegian

Uztailaren 1etik abuztuaren amaiera arte, udako ordutegia egongo da kirol instalakuntzetan.

Honen arabera, astelehenean ostiralera kiroldegia 07:00-13:00 eta

17:00-22:00 bitartean irekia izango da. Larunbatetan, 09:00etatik 13:00etara erabili ahalko dira instalakuntzak eta igandean itxita egongo da.

Michelingo kirol gunea, berriz, astelehenean ostiralera 10:00-12:30 eta 17:00-21:00 ordu tartetan erabili ahalko da. Larunbatetan goizez izango da irekia, 09:00-13:00 eta igandean itxita.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

San Pedro Jaiak txintxarri.info-n

Jarraitu San Pedro jaiak txintxarri.info orrialdean sortu dugun atal berezian eta sare sozialetan. Iaz bezala hiru txupinak streaming bidez zuzenean eskainiko ditugu. Eta honetaz gain, argazkiak, bideoak, jaietako berriak... denetarik izango dugu gure orrialdean, baita zure argazkiak zintzilikatzeko aukera ere.

TXINTXARRI-n zure argazkiak

[Txintxarri.info](http://txintxarri.info)-n argazkiak atalean sartuta "igo argazkiak!" aukera aurkituko duzue. Hori bai, lehenengo aldiz sartzekoan erabiltzailea erregistratu beharko da, pasahitza eskuratzeko. Hauekin sartu eta argazkiak igo eta kudeatzeko lagungarri izango zaizkizuen argibideak aurkituko dituzue jarraian.

Baina ez da hau jaietan atera dituzun argazkiak TXINTXARRI-n argitaratzeko modu bakarra. Zure argazkiak txintxarri@txintxarri.info helbidera bidalitz gero ere argitaratuko ditugu.

Gainera, astelehena baino lehen jasotzen ditugun argazkiak uztailaren 1an, San Pedro jaietako argazkiekin osatutako TXINTXARRI berezian argitaratuko ditugu. Animatu eta parte hartu!

DANI karrozeria

Trebeak gara kolpe handiak konpontzen

- Kabina labeduna
- Txapak zuzentzeko oinarri unibertsala
- Tapizatuen garbiketa

ONDO PASA HERRIKO JAIETAN!



Zirkuitu ibilbidea 12
20160 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 371440
Mobila: 608 391885

carroceriasdani@telefonica.net

CARNICERÍA
ARANZABAL
HARATEGIA

SAN PEDRO JAI
ZORIONTSUAK
OPA DIZUEGU!

Jaizkibel plaza 11
20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 365156





ALCAR VENTANAS **Jai ahaztezinak igaro!**

Tel: 943 37 78 68
www.ventanasalcar.com

Zuregandik hurbil
www.facebook.com/VentanasAlcar

ERAKUSKETA
Plaza Oriamendi, 2
(Lehengo Doble J)
20160 - Lasarte-Oria - Gipuzkoa

TAILERRA
Ibaiondo, 4
erdisotoa 5-A

Tel: 943 37 78 68
tienda@ventanasalcar.com
www.ventanasalcar.com

SOJEO - Lasarte-Oria - Gipuzkoa
(Lehengo Doble J)
20160 - Lasarte-Oria - Gipuzkoa

www.ventanasalcar.com
tienda@ventanasalcar.com
Tel: 943 37 78 68



JOSE AIZPURUA UNANUE S.L.



eraikuntzak

SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK OPA DIZUEGU!



- Igeltseritza orokorrean
- Fatxaden estaldurak
- Estalkien berriztatzeak
- Gremioen koordinazioa
- Barne erreformak



SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK
OPA
DIZUEGU!
ONDO PASA!

IZARRA

BITXITEGIA



www.izarrabitxitegia.com

Geltoki kalea 19 • Tel.: 943 371384
Juan XXIII.a plaza, z/g • Tel.: 943 364945

IPARJOY[®] A.L.E.

